"Juan San Martín" GIZA ESKUBIDEEN BILDUMA




# ADINGABEAK EDO ATZERRITARRAK? ESKU HARTZEKO POLITIKEN AZTERKETA, LAGUNDU GABEKO ADINGABE ATZERRITARREN GAINEKOA

ararteko
Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

Alazne Gozalo Goicoechea
Eva Jiménez Martín
Laura Vozmediano Sanz

# ADINGABEAK EDO ATZERRITARRAK?
# ESKU HARTZEKO POLITIKEN AZTERKETA, LAGUNDU GABEKO ADINGABE ATZERRITARREN GAINEKOA

**Alazne Gozalo Goicoechea**
**Eva Jiménez Martín**
**Laura Vozmediano Sanz**

© ARARTEKO

© Egileak:
Alazne Gozalo Goicoechea, Eva Jiménez Martín y Laura Vozmediano Sanz

Itzulpena:
HORI-HORI S.A.

Fotokonposaketa eta inprimaketa:
Gráficas Santamaría, S.A., Vitoria-Gasteiz

Azaleko irudia:
EPS, S.L., Vitoria-Gasteiz • www.euskoprintingservice.net

Paper ekologikoa

ISBN: 978-84-89776-43-2

L.G.: VI 475-2010

**Taulen aurkibidea** .......... **8**

**Irudien aurkibidea** .......... **9**

**1. Aurkezpena** .......... **11**

**2. Egileen eskerrona** .......... **13**

**I. ZATIA: AZTERLAN TEORIKOA** .......... **15**

**3. Hitzaurrea** .......... **15**

**4. Ikerketaren norainokoa eta helburuak** .......... **17**

4.1. Ikerketaren testuingurua eta helburuak .......... 17

4.1.1 Helburu orokorra .......... 18

4.1.2 Berariazko helburuak .......... 18

4.1.3 Azterketarako aldia .......... 18

**5. Lagundu gabeko adingabe atzerritarrak** .......... **19**

5.1. Terminologia eta definizioak: zedarritzea .......... 19

**6. Haurraren eskubideen nazioarteko eta Europako esparru juridikoa** .......... **21**

6.1. Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioa .......... 21

6.2. Europar Batasunaren esparru juridikoa .......... 22

**7. Adingabeei Espainiako Estatuan aplikatu beharreko araudia** .......... **25**

7.1. Hitzaurrea .......... 25

7.2. Adingabeak babesteko estatuko eta autonomiako legeria .......... 25

7.3. Adingabea atzerritarra denean: Atzerritarren eskubideei eta betebeharrei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Organikoa .......... 27

**II. ZATIA: LAGUNDU GABEKO ADINGABE ATZERRITARREI BURUZKO AZTERLAN ENPIRIKOA (2006-2007)** .......... **31**

**8. Erabilitako metodologia eta prozedura** .......... **31**

8.1. Hitzaurrea .......... 31

8.2. Lagina eta prozedura .... 32
8.2.1. Unibertsoa.... 32
8.2.2. Lagina .... 32
8.2.3. Prozedura.... 33
8.3. Materialak .... 33

**9. Azterlanaren emaitzak .... 35**
9.1. Adingabearen profila: generoa, bizi den probintzia eta nazionalitatea .... 36
9.2. Adingabearen profila: adina .... 40
9.2.1. Adingabeak adierazitako adina .... 41
9.2.2. Hezur-proben bidez kalkulaturiko adina .... 41
9.2.3. Adierazitako adina eta hezur-proben bidez kalkulaturikoa bat ez etortzea .... 42
9.2.3.1. Adierazitako adina eta hezur-probetakoa bat ez etortzeen bilakaera .... 44
9.2.3.2. Adierazitako adinaren eta hezur-probetako adinaren arteko bat ez etortzea, lurralde historikoen arabera .... 45
9.2.4. Auzitegi medikuaren probak: aldaketarik al dago urte batetik bestera? .... 46
9.2.5. Auzitegiko medikuaren beste proba batzuk .... 48
9.3. Sartzeko baldintzak .... 48
9.3.1. Sarrerako data .... 48
9.3.2. Sarrerako ordua .... 50
9.3.3. Jatorriko zerbitzuak .... 52
9.3.4. Herrialdean sartzeko garraiobidea .... 53
9.3.5. Gaztelaniaz jakitea .... 54
9.3.6. Adingabearen lehen hizkuntza .... 54
9.3.7. Dokumentu pertsonalak .... 57
9.3.8. Polizi txostena .... 58
9.3.9. Fiskaltzaren agindua .... 59
9.3.10. Lege egoera .... 60
9.3.11. Ba al dago erlaziorik fiskaltzaren aginduaren eta lege egoeraren artean? .... 61
9.3.12. Kasuaren plana eta neurriaren iraupen aurreikusia .... 63
9.4. Estatuko ibilbideak: herrialdean sartzen direnetik EAEko adingabeak babesteko sisteman sartzen direnera arte .... 63
9.4.1. Estatuko ibilbideak: toki bakoitzeko egonaldiaren iraupena .... 65
9.5. EAEko babes sistemako ibilbidea .... 67
9.5.1. MENA taldekoek babes sisteman duten ibilbidearen azterketa .... 68
9.5.1.1. Laburpen-taula: egonaldian kopurua eta iraupena .... 68
9.5.1.2. Ibilbide zehatza: zentroak eta adingabeen kopurua .... 68
9.5.2. MENA taldekoak izaten diren babes zentroen azterketa .... 71
9.5.2.1. Zentro guztien zerrenda: egonaldi kopurua, batez besteko iraupena, plaza eta hezitzaileak .... 72
9.6. Administrazio gestioak .... 74

9.6.1. Adingabearen tutoretza ........ 74
9.6.2. Erroldatzea ........ 75
9.6.3. Pasaportea ........ 77
9.6.4. Egoitza baimena ........ 78
9.6.5. Lan egiteko baimena ........ 79
9.6.6. Administrazio gestioak: berandutzeen taula ........ 79
9.7. Egoitza testuingurua ........ 86
9.7.1. Famili txostena izatea ........ 86
9.7.2. Harremanak jatorrizko familiarekin ........ 86
9.7.3. Harremanak familiarekin: berandutzea ........ 87
9.8. Eskola testuingurua ........ 87
9.8.1. Jatorrizko eskolatzea ........ 88
9.8.2. Eskolatzea gaur egun ........ 89
9.9. Jarraipena ........ 91
9.9.1. Jarraipen-txostenak egitea ........ 91
9.9.2. Jarraipen-bilerak ........ 92
9.10. Osasuna ........ 93
9.10.1. Osasun-txartela eskatzea eta ematea ........ 93
9.10.2. Osasun-txartela: berandutzeen taula ........ 94
9.10.3. Azterketa medikoa ........ 95
9.10.4. Diagnostikoak edo gomendioak ........ 95
9.11. Tutoretzari uztea ........ 96
9.11.1. Guztizko egonaldia ........ 96
9.11.2. Babes sistematik irteteko zioak ........ 98
9.11.3. Emantzipazio edo desbideratze plana ........ 98
9.11.4. Gomendioak ........ 99
9.11.5. Tutoretzari uztearen ondoko lana edo bizitzeko baliabideak ........ 100
9.12. Kausa judizialak dituzten MENA taldekoak ........ 100
9.13. Genero-ikuspegia: desberdintasunik al dago nesken eta mutilen artean? ........ 101
9.13.1. Aldagai kuantitatiboak ........ 101
9.13.2. Aldagai kualitatiboak (kategoriakoak) ........ 101

**10. Ondorioak ........ 103**

**11. Bibliografia aipamenak ........ 113**

**12. Eranskinak ........ 117**
12.1. I. eranskina. Jaioterria, espedientearen arabera ........ 118
12.2. II. eranskina. Datuak biltzeko fitxa ........ 119

## TAULEN AURKIBIDEA


1. taula. Laginaren profila: generoa lurralde historikoka ..... 37
2. taula. Lagineko adingabeak, urtearen eta lurralde historikoaren arabera ..... 38
3. taula. Adingabeen nazionalitatea: EAE-ko datu orokorrak ..... 38
4. taula. Adingabeen nazionalitatea, lurralde historikoen arabera ..... 39
5. taula. Hezur-probak egitea (EAE-ko datu orokorrak) ..... 42
6. taula. Aldea: hezur-probako adina ken adierazitako adina ..... 44
7. taula. Hezur-probek kalkulaturiko adinaren eta adierazitako adinaren arteko aldea: emaitzak lurralde historikoen arabera ..... 46
8. taula. Ez dago alderik auzitegiko medikuaren probak egitean, urte batetik bestera, laginaren guztizko kopuruan ..... 46
9. taula. Hezur-probak egitea urtean, Gipuzkoan ..... 47
10. taula. Hezur-probak egitea urtean, Bizkaian ..... 47
11. taula. Hezur-probak egitea urtean, Araban ..... 48
12. taula. Sarrerako ordu-tartea ..... 51
13. taula. Jatorriko herrialdeko zerbitzuak ..... 52
14. taula. Herrialdean sartzeko garraiobidea ..... 53
15. taula. Adingabearen lehen hizkuntza (espedientean agerrarazia) ..... 54
16. taula. Adingabeak daramatzan dokumentu pertsonalak ..... 57
17. taula. Polizi txostena ..... 58
18. taula. Fiskaltzaren agindua ..... 59
19. taula. Adingabearen lege egoera zaintzari edo tutoretzari dagokionez ..... 60
20. taula. Fiskaltzaren agindua / MENA taldekoen lege egoera ..... 61
21. taula. Fiskaltzaren agindua / MENA taldekoen lege egoera Gipuzkoan ..... 62
22. taula. Fiskaltzaren agindua / MENA taldekoen lege egoera Bizkaian ..... 62
23. taula. Fiskaltzaren agindua / MENA taldekoen lege egoera Araban ..... 63
24. taula. Egonaldiaren iraupena lehen tokian, EAE-ko babes sisteman sartu baino lehen ..... 65
25. taula. Egonaldiaren iraupena lehen tokian, babes sisteman sartu baino lehen ..... 66
26. taula. Egonaldiaren iraupena bigarren tokian, EAE-ko babes sisteman sartu baino lehen ..... 67
27. taula. Babesean izandako egonaldi guztiak ..... 68
28. taula. Egonaldiaren batez besteko iraupena zentro motaren arabera ..... 71
29. taula. Bizkaiko zentroen xehetasunak, 2007ko abenduaren 31n ..... 72
30. taula. Gipuzkoako zentroen xehetasunak, 2007ko abenduaren 31n ..... 73
31. taula. Arabako zentroen xehetasunak, 2007ko abenduaren 31n ..... 74
32. taula. Tutoretza eskaera ..... 75
33. taula. Errolda eskaera ..... 76
34. taula. Pasaporte eskaera ..... 77
35. taula. Egoitza baimena eskatzea ..... 78
36. taula. Famili txostena ..... 86
37. taula. Harremanak jatorrizko familiarekin ..... 87

38. taula. Eskolatzea jatorrizko herrialdean .......... 88
39. taula. Eskolatzea gaur egun .......... 89
40. taula. EAE-ko ikastetxeen kopurua .......... 90
41. taula. Gaur egun egiten ari diren ikasketak .......... 90
42. taula. Jarraipen-txostenak .......... 91
43. taula. Jarraipen-bilerak .......... 92
44. taula. Osasun-txartela eskatzea .......... 93
45. taula. Azterketa medikoa .......... 95
46. taula. Diagnostikoa .......... 96
47. taula. Egonaldiaren iraupena babes sisteman .......... 96
48. taula. Babes sistematik irtetea: zioak .......... 98
49. taula. Emantzipazio edo desbideratze plana izatea .......... 98
50. taula. Gomendioak .......... 99
51. taula. Kausa judizialak dituzten MENA taldekoen profila .......... 100
52. taula. Kausa judizialen xehetasunak .......... 100
53. taula. Kategoria aldagaien arteko erlazioak .......... 102

## IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia. Laginaren profila: generoa .......... 36
2. irudia. Adingabeen portzentajea egoitzako lurralde historikoaren arabera .......... 37
3. irudia. Nazionalitatea: EAE-ko datu orokorrak .......... 39
4. irudia. Hezur-probak egitea, lurralde historikoka .......... 42
5. irudia. Adierazitako adinaren eta hezur-probekin kalkulaturiko adinaren arteko erkaketarako lagina .......... 43
6. irudia. Hezur-probek kalkulaturiko adina: emaitzak urteen arabera .......... 44
7. irudia. Hezur-probek kalkulaturiko adina: emaitzak lurralde historikoen arabera .......... 45
8. irudia. 2006 eta 2007ko sarrerak, hileen arabera .......... 49
9. irudia. 2006 eta 2007ko sarrerak Gipuzkoan, hileen arabera .......... 49
10. irudia. 2006 eta 2007ko sarrerak Araban, hileen arabera .......... 50
11. irudia. 2006 eta 2007ko sarrerak Bizkaian, hileen arabera .......... 50
12. irudia. Sarrerako ordua Gipuzkoan .......... 51
13. irudia. Sarrerako ordua Bizkaian .......... 52
14. irudia. Jatorriko herrialdeko zerbitzua, lurralde historikoen arabera .......... 53
15. irudia. Herrialdean sartzeko garraiobidea, lurralde historikoaren arabera .......... 54
16. irudia. Adingabearen lehen hizkuntza (espedientean agerrarazia) .......... 55
17. irudia. Adingabearen lehen hizkuntza, Gipuzkoan .......... 56
18. irudia. Adingabearen lehen hizkuntza, Bizkaian .......... 56
19. irudia. Adingabearen lehen hizkuntza, Araban .......... 57

20. irudia. Adingabeak daramatzan dokumentu pertsonalak, lurralde historikoen arabera............ 58
21. irudia. Polizi txostena, lurralde historikoen arabera ............................................................... 59
22. irudia. Fiskaltzaren agindua, lurrade historikoen arabera....................................................... 60
23. irudia. Adingabearen lege egoera, lurralde historikoen arabera.............................................. 61
24. irudia. MENA taldekoen ibilbideak Espainiako Estatuan ........................................................ 64
25. irudia. Egonaldiaren iraupena lehen tokian, babes sisteman sartu baino lehen ............................. 65
26. irudia. Egonaldiaren iraupena bigarren tokian, babes sisteman sartu baino lehen .................. 66
27. irudia. Egonaldi guztien iraupena, EAE-ko babes sisteman sartu baino lehen ........................ 67
28. irudia. Ibilbide zehaztua ........................................................................................................ 69
29. irudia. Tutoretza eskaera, lurralde historikoaren arabera........................................................ 75
30. irudia. Errolda eskaera, lurralde historikoen arabera ............................................................. 76
31. irudia. Pasaportea eskatzea, lurralde historikoen arabera....................................................... 77
32. irudia. Egoitza eskaera, lurralde historikoen arabera.............................................................. 79
33. irudia. EAE-ko babes sistemako egonaldiaren iraupenari buruzko xehetasunak ..................... 81
34. irudia. Sisteman sartzen denetik babesa eskatu arteko denbora ............................................. 82
35. irudia. Sisteman sartzen denetik errolda eskaera egin arteko denbora.................................... 83
36. irudia. Sisteman sartzen denetik pasaportea eskatu arteko denbora ....................................... 84
37. irudia. Sisteman sartzen denetik egoitza baimena eskatu artera arteko denbora ...................... 85
38. irudia. Famili txostena, lurralde historikoen arabera .............................................................. 86
39. irudia. Harremanak jatorrizko familiarekin, lurralde historikoen arabera............................... 87
40. irudia. Jatorrizko herrialdeko eskolatze-urteen kopurua .......................................................... 88
41. irudia. Eskolatzea gaur egun, lurralde historikoaren arabera................................................... 89
42. irudia. EAE-n ikasi duen ikastetxe kopurua, lurralde historikoen arabera .............................. 90
43. irudia. Jarraipen-txostenak, lurralde historikoen arabera ....................................................... 92
44. irudia. Jarraipen-bilerak, lurralde historikoen arabera ........................................................... 93
45. irudia. Osasun-txartela eskatzea,lurralde historikoen arabera ................................................ 94
46. irudia. Babes sisteman sartzen denetik osasun txartelaren gestioak egiten arteko denbora........ 94
47. irudia. Azterketa medikoa, lurralde historikoen arabera.......................................................... 95
48. irudia. Sisteman sartzen denetik irten arte igarotako denbora ................................................ 97
49. irudia. Egonaldien iraupena azterlanetako urte bakoitzean ..................................................... 97
50. irudia. Egonaldiaren iraupena lurralde historiko bakoitzean ................................................... 97
51. irudia. Emantzipazio edo desbideratze plana izatea, lurralde historikoen arabera ................... 99

# 1. AURKEZPENA

Azken urteotan, lehentasunezko eta berariazko arreta izan du Arartekoaren erakundean lagundu gabeko adingabe atzerritarren egoerak gure erkidegoan, eta halaxe islatu da 2005ean argitaraturiko aparteko txostenean ***("EAEn lagundu gabeko adingabe atzerritarren egoera")*** zein urteroko txostenetan eta jarraipenetan (adibidez: 342-401. orrietan, orain arte argitaratu den 2009ko azken ohiko txostenean).

Erakunde honek hiru pertsonako talde bati egun batean ikerketa bat egiteko emandako beka baten emaitza da hemen aurkezturiko lana; izan ere, aurkeztu den proiektuaren arabera, esku artean ditugunak baino datu berriagoak eman diezazkiguke eta, aldi berean, informazio gutxiago izan ohi dugun gaiak lantzen ditu. Ez zen izan Arartekoaren bekan aurkeztu eta lagundu gabeko adingabe atzerritarrei buruzko ikerketa proiektu bakarra. Orain dela hilabete gutxi beste bi ikerketa lan argitaratu dira, horiek ere bekaren deialdian aurkeztuak. ***Patrikako ametsak. Lagundu gabeko adingabe atzerritarrak EAEn eta lagundu gabeko adingabe atzerritarren (MENA) drogamendekotasuna: kalitatezko hezkuntza eta osasuna izateko eskubidea***, Lan eta Gizarte Gaietarako Sailak berriki argitaratuak. Horiek guztiek garrantzizko informazioa ematen digute.

Eva Jimenezek, Alazne Gonzalok eta Laura Vozmedianok osaturiko taldeak egin duen ikerketa lana esker gutxikoak izan ohi diren lanetako bat da: lanaldi ordu asko egin behar dira norberak lortu nahi duen informazioa biltzeko eta aztertzeko.

Erabilitako metodologia, funtsean, lagundu gabeko adingabe atzerritarren 329 adingabeen lagin batean eskuragarri dagoen informazioa hustea eta aztertzea izan da, hiru lurralde historikoetakoa eta 2006 eta 2007. urteei dagokiena. Horretarako,

datuak biltzeko fitxa bat erabili da (lanaren eranskin gisa emana), harrera prozesu edo ibilbidearen funtsezko alderdiak biltzen dituena.

– Adingabearen identifikazioa eta haren datuak, hezur-proben emaitzak barne.
– Zentroan sartzearen hasierako uneetako berezko baldintzak eta inguruabarrak.
– Adingabeak erregulatzeko eta dokumentatzeko gauzaturiko administrazio-gestioak (tutoretza bere gain hartzea, erroldatzea, pasaportea lortzea, egoitza eta lan baimenak eskatzea eta eskuratzea, etab.).
– Adingabe bakoitzak babes sisteman jarraituriko ibilbidea.
– Jatorrizko familiarekin izandako harremanak bizilekuaren testuinguruan.
– Prestatze- edo eskolatze-prozesua, edo laneratzeko aukerak.
– Osasuna zaintzea.
– Emantzipazio edo babes sistematik irteteko prozesua…

Horri guztiari buruzko informazio zehaztua ematen digu lanak, baina ez da fidagarritasun bera eskaintzen alderdi guztietan.

Zeren aipatu beharreko baldintzatzaile bat aurkitu baita ikerketan: azterturiko espediente edo historia pertsonalek (multzoaren lagin adierazgarritzat hartutako espediente pertsonalak, lurralde bakoitzarekiko proportziokoa) ez dute beti izaten beharrezko informazioa. Are gehiago, funtsezko zenbait alderditan, informazio eskuragarri gutxi zegoen, hots: Informaziorik gabeko espediente gehiago zegoen informaziodun espedienteak baino. Foru aldundiek eta izapidetzearen eta zaintzearen arduradunak zuzendu beharreko hutsunea da, zalantzarik gabe.

Nolanahi ere, eta adierazitako mugak gorabehera, datu asko ematen digu lanak erabili ohi dugun informazioari dagokionez; batzuk osagarriak, berriak besteak.

Lagundu gabeko adingabe atzerritarrek bereziki zaurgarria den biztanleria sektorea osatzen dute haien eskubideen aldetik. Haien errealitatea, ibilbidea, igurikapenak, zailtasunak hobeto ezagutzeak baliagarria izan behar du guztiontzat gure esku-hartzea hobetzeko eta eraginkorragoa izateko: tartean diren erakundeenak (asko dira, ez bakarrik foru aldundiak), konprometituriko gizarte eragileenak (horiek ere asko dira) eta oro har gizarte osoarena; behar-beharrezkoa da gizartearen elkartasuna.

Aurkezpen hau bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiet bereziki lanaren egileei, baita espedienteak eskuratzeko modua eman duten erakundeetako arduradunei eta ikerketa lana koordinatu eta berrikusi duen Arartekoaren erakundeko pertsonalari ere, zeren lana argitaratzea ahalbidetu baitu pertsonal horrek.

*Iñigo Lamarca Iturbe*
Arartekoa

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekaina

## 2. EGILEEN ESKERRONA

Eskerrak eman nahi dizkiegu nola edo hala azterlan hau gauzatu ahal izateko eskuzabaltasunez lagundu diguten pertsona guztiei.

Lehenik eta behin, EAEko hiru foru aldundietako arduradunei eta parte hartu duten eragileei.

Halaber, hiru aldundietako Haur Zerbitzuetako pertsona guztiei, haien etenik gabeko arretagatik, prestutasunagatik eta laguntasunagatik, bereziki Jose Maria Viloriari eta Julian Peñari (Egoitzako Harrerako Unitatea – Haurren Zerbitzua). Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari; Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamenduko Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuburua den Patxi Agirianori eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizateko Foru Erakundeko –Haurren Foru Zerbitzua– Manuel Gallardori.

# I. zatia:

# AZTERLAN TEORIKOA

## 3. HITZAURREA

Azken urteotan, pertsona-talde jakin bat agertu da gure errealitatean, bere ezaugarriak direla-eta banako tratamendua behar duena. **Lagundu gabeko adingabe atzerritarrak dauden gizarte taldeak oinarrizko elementu bereizgarriak ditu; alde batetik, adingabekoak izatea, eta bestetik atzerritarrak izatea.**

Datozen orrialdeetan, alde anitzeko errealitatea azalduko dugu. Izan ere, 1996az gero ikusten hasi da; gertaera berria da, **EAEra erreferentziako pertsona heldu batek lagundu gabe iristen diren adingabeen migrazioa.**

Bakarrik edo eurekiko erantzukizunik ez duten pertsona helduekin datozen adingabe horien etorrera migrazio estrategia berria eta adierazgarria bilakatu da, eta babes sistemek zailtasun handiekin egin behar izan diote aurre, zeren hasieratik hauxe izan baita ezbaia: zein ezaugarri nabarmendu behar den: adingabeak izatea edo atzerritarrak izatea.

**Horrexegatik, honako proiektu[1] honek EAEn lagundu gabeko adingabe atzerritarren egoera modu deskriptiboan azaldu nahi du, baita babes sistemarekin duen erlazioa ere.**

**Horretarako, haien estatutu juridikoa eta pertsonala osatzen duten ezaugarri nagusien azalpen zehatza egiten da (babes sistema**

[1] Arartekoak urtero egiten duen ikerketa aplikatuko beken deialdiaren barruan sartzen da lana, zehazkiago 2008ko ekainaren 5ekoan, noiz-eta hautaketa-batzordeak beka hori esleitzea proposatu zuenean azken deialdiarekin bat etorriz (EHAA, 235. zk., 2007ko abenduaren 7koa).

**eskuratzea, sistema horren prestazioak –ostatua, hezkuntza eta osasuna–, aurreikusitako babes sistema, aberriratze politikak, erregularizaziorako aukerak, laneratzea eta helduen adinera igarotzea), hots, adingabeak polizia-etxeetan (edo Larrialdiko Udal Zerbitzuan, Araban gertatzen den moduan) sartzen direnetik itzultzen diren arte.**

Esan beharra dago harrera sistemak bete behar duen eginkizun bikoitzaren ondoriozkoak direla azterturiko ezaugarriak: alde batetik, bizikidetza testuingurua eskaintzea, haurraren garapen osoa sustatzeko; eta bestetik, gizarteratzea eta gizartean egokitzea erraztea.

Aurkezturiko emaitzetan ez da banako kasua aipatzen, baina bidezkoa izango litzateke hori aipatzea adingabe bakoitzak behar duen esku-hartzea programatu eta planifikatu nahi izango bagenu. Alabaina, adingabeak babes sistemaren barruan zelan dauden jakitea da interesatzen zaiguna ikerketa honetan.

Txostenaren egitura hiru zatitan dago banatuta; zatiak ondo bereizita daude edukiaren eta lan-metodoaren aldetik. Hala, lehen zatian testuingurua eta azterlan teorikoak aurkeztuko ditugu. Bigarrenean, berriz, azterketa enpirikoa dago. Azkenik, azterlanaren ondorioei buruzko atala dago.

# 4. IKERKETAREN NORAINOKOA ETA HELBURUAK

## 4.1. Ikerketaren testuingurua eta helburuak

1997. urtean, Arartekoaren aparteko txostena argitaratu zen, hain zuzen ere ***EAEn babesik gabe dauden haurren eta nerabeen arreta*** izenekoa, eta garai hartan ia ez ziren ezagutzen lagundu gabeko adingabe atzerritarrak. Hamar urte geroago, ostera, Haurrak Babesteko Zerbitzuetan kezka-iturririk nagusienetakoa da haien arreta. Hortaz, nahikoa gertaera berria da; izan ere, azken lauzpabost urtean, oso bizkor garatu da. Hala, foru aldundiek emandako datuen arabera, 90eko amaieran hamar bat adingabe atzerritar zeuden. Zifra berriagoen arabera, berriz, 700 inguru izan dira harrera egonkorrean arreta jaso dutenak. 2006. urtean: 612[2] Bizkaian -adingabe gehiago jaso da lurralde historiko horretan-, 72[3] Gipuzkoan eta 9[4] Araban. Data jakin bateko datuak dira, hots, urtean izaten diren altak eta bajak aintzat hartu barik, hain zuzen babes sistemak arreta ematen dien lagundu gabeko adingabe atzerritarren kopurua ezartzeko; izan ere, aldi berean ematen die erantzuna adingabeen beharrei “egoitza sare egonkorrean”.

Nahiz eta esku hartzeko arlo horretan izaten diren zifrak oso kontu handiz erabili behar izan, hauxe uzten dute agerian zalantzarik gabe data jakin batean arreta jaso duten adingabeen datuek: adingabe atzerritarren dimentsioetan hazkunde ikaragarri handia dagoela. Bereziki jardun behar da kontuz urteko zenbatekoari dagokionez, arreta jaso duten banakoen zenbaketa zehatza

[2] 2006ko abenduaren 15ean zenbaturiko datuak.

[3] 2006ko azaroaren 30ean zenbaturiko datuak.

[4] 2006ko abenduaren 19ari dagokion datua.

ahalbidetzen duen mekanismorik ez dagoela-eta,adingabeen mugikortasunaren eta maiz izen desberdinak erabiltzearen ondorioz.

Hala, errealitate hori EAEn adingabeak babestearen arloan hartzen ari den nagusitasuna Europako beste herrialde batzuetan ere ikusten ari den gertaera orokorraren isla besterik ez da –Bizkaian eta Gipuzkoan, egoitzako harreran zeuden haur eta nerabe guztien %25 baino gehiago ziren arreta jaso zuten adingabe atzerritarrak 2006ko amaieran, eta ehuneko handiagoa izan zen Bizkaiko lurraldean: %37koa-. Erronka handia da harrerako herrialdeetako babes sistementzat, zeren eta herrialde horiek egoerari erantzuna emateko duten gaitasuna kasu askotan gainditu egin baita eta arazo larriak sortu baitzaizkie.

Testuinguru horretan, helburu hauek planteatzen ditu ikerketak:

4.1.1 Helburu orokorra

- Lagundutako adingabe atzerritarrekin EAEn Giza Eskubideak eta Haurraren Eskubideak errespetatzearen esparruan esku hartzeko egiten ari diren politikak aztertzea.

4.1.2. Berariazko helburuak

- Esku hartzeko politikak aplikatzeko eta Giza Eskubideei egokitzeko jarraitzen diren irizpide juridikoak aztertzea.
- Baliabideetan dauden adingabe atzerritarren kopurua zenbatzea eta horien bilakaera aztertzea.
- Adingabeen profila zehazki azaltzea.
- Adingabeek EAEn duten egoera aztertzea legearen, babesaren, dokumentazioaren, harrera programen, legeria urratzearen ondorioz gazteek duten egoeraren, administrazioaren aukerako jardueren kasuen eta haurren eskubideen urraketen esparruan.
- Adingabeekin esku hartzeko proposamena aurkeztea.

4.1.3. Azterketarako aldia

Ikerketa honen azterketarako aldia 2006ko urtarriletik 2007ko abendura artekoa da, hots, bi urtekoa. Aldi horretan EAEko babes sistemaren barruan hartu diren lagundu gabeko adingabe atzerritar guztiek osatzen dute azterlan honen xedeko biztanleria.

# 5. LAGUNDU GABEKO ADINGABE ATZERRITARRAK

## 5.1. Terminologia eta definizioak: zedarritzea

Espainiako Estatuan, gehien erabiltzen den terminoa "lagundu gabeko adingabe atzerritarrak" da; izan ere, izendapen ofiziala da, abenduaren 30eko 2393/2004 Errege Dekretuaren 92. artikuluaren izenburua da, eta Dekretu horrek urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren (8/2000 eta 14/2003 Lege Organikoen bidez aldatua) 35. artikulua garatu du eta atzerritarren zuzenbidearen ikuspegitik haur horiei ematen zaien berariazko tratamenduaren oinarria da.

Alabaina, Daniel Senovillak dioenez[5], Europako beste herrialde batzuetan bestelako izendapenak daude, estatu horietan migrazioan jarduteko dituzten politiken arabera. Hala, gure azterlanaren esparruan, asiloa eskatzen duten lagundu gabeko adingabeak edo iheslariak izendapena erabiltzen dute Alemanian nahiz Erresuma Batuan ***(unaccompanied asylum seeking minors edo unaccompanied refugee minors)***, zeren etorkin horien tratamendua soilik asilo eskubidearen ikuspegitik egiten baita. Italia, berriz, Espainiakoaren antzeko eredukoa da, eta termino bera erabiltzen du ***("minori etranieri non accompagnati")***, eta halaxe erabiltzen da Belgikan ere ***("mineurs étragers non accompagnés")***. Azkenik, Frantziak berariazko terminoa darabil ***("mineurs isolés étrangers")***; honelaxe itzul dezakegu termino hori: bakarturiko adingabe atzerritarrak.

Ezinbestekoa da "lagundu gabekoa" eta "banatua" terminoen bereizketa aipatzea; migrazio mota horren subjektu protagonistaren definizioarekin

[5] Ideo Taldea (2009) "Menores migrantes sin referentes familiares. Una perspectiva integral del fenómeno" 1. kapitulua, Senovilla Hernández, Daniel "Menores extranjeros no acompañados y separados en Europa. Un estudio comparado de seis países". 14. or. Grupo Editorial Universitario. Granada.

dago lotuta bien arteko erkaketa. Bi terminoak askotan modu desberdinean erabiltzen badira ere, Nazio Batuen Haurraren Eskubideen Batzordearen 6. Ohar Nagusiak, 2005. urtean, definizio bikoitza ezarri zuen, lagundu gabeko adingabeak (ez gurasoek edo tutoreek ez adingabearen zaintza izan lezakeen familiako beste edozein kidek lagundu gabe daudenak) eta adingabe banatuak bereizten dira (azken horiek gurasoengandik edo legezko tutoreengandik banatuta daude baina beste senide batzuekin lagunduta egon daitezke).

Beste aditu batzuen arabera, Francisco Duranen arabera[6] adibidez, honela definitzen da MENA (lagundu gabeko adingabe atzerritarra) Zuzenbide komunitarioan: "Estatu kideetako lurraldera haien ardura duen pertsona heldu batekin lagundu gabe iristen den hamazortzi urtetik beherako adingabea, legez edo usadio eta ohituren arabera, haren ardura duen pertsona helduaren zaintzapean ez dagoen bitartean" (Kontseiluak 2003ko urtarrilaren 27an emandako 2003/9/EE Zuzentaraua eta Kontseiluak 2001eko uztailaren 20an emandako 2001/55/EE Zuzentaraua). Gainera, kontzeptu horren barruan sartzen dira ondokoak ere: "Estatu kideetako lurraldean sartu ondoren pertsona helduek lagunduta egoteari uzten diotenak".

Bi definizioen jatorria aurkitzeko, hirugarren herrialdeetako lagundu gabeko adingabe nazionalei buruz Europako Kontseiluak 1997ko ekainaren 26an emandako 97/C 221/03 Ebazpenera jo behar da, baina kanpoan gelditzen dira Batasuneko lurraldean sartu ondoren bakarrik gelditzen diren adingabeak.

Adingabeak ez dira talde homogeneoa motibazioen eta egoeren aldetik, baina gehienak lanerako asmo nabarmenekin etortzen dira Espainiako Estatura. Horixe da haien arazo sozialaren eta juridikoaren sorburua. Jatorrizko herrialdean pertsona heldu gisa bizi, jardun eta tratatzen badira ere, EBra etortzean haurtzat hartzen dituen sistema batekin egiten dute topo, eta eurena ez den ikuspegi batekin babesten dira; izan ere, haien migrazio proiektua berehala betetzea galarazten du egoera horrek: haien eta familiaren egoera ekonomikoa hobetzera baino trebakuntza edo osasuna hobetzera dago bideratuta proiektua.

Haien egoera are konplexuagoa da zuzenbidearen ikuspegitik, etorkinen taldearen barruan egonda ere, zeren MENA taldekoek egoera dialektikoa baitakarte bi izaera bikoitzagatik: egoera irregularrean dauden etorkinak dira, eta horrek murrizketak dakartza zuzenbidearen aldetik; bestetik, adingabeak dira, eta horrek bermatu egiten dien babesa ez dator beti bat nahi edo behar duten laguntzarekin. Horrexegatik, eta aurreko lerroetan adierazi dugunez, adingabe horiei dagokien babesa bermatzen zaien ala ez jakin gura dugu.

**Testu honetan, "lagundu gabeko adingabe atzerritarrak" terminoa erabiliko dugu praktikotasunagatik funtsean. Espainiako Estatuan eta Europako herrialdeetan gehien erabiltzen den izendapena da, eta gainera Europar Batasunaren araudiak erabilitakoa da.**

[6] Durán Ruiz, Francisco Javier (2007): Las administraciones públicas ante los menores extranjeros no acompañados: Entre la represión y la protección. Granadako Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko aldizkari elektronikoa www.refdugr.com.

## 6. HAURRAREN ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO ETA EUROPAKO ESPARRU JURIDIKOA

### 6.1. Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioa

Azken urteotan[7] gora egin du haurren eskubideei buruzko nazioarteko araudien, adierazpenen, itunen eta konbentzioen kopuruak. Baina araurik garrantzitsuena Nazio Batuen Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioa da, 1989koa. Historian gehien berretsi diren konbentzioetako bat da, orain arte 193 estatuk onetsi baitute.

Konbentzioa berresteak berekin dakar estatuetako ordenamendu juridikoak araudia ezartzea, eta horrekin, haurren eta nerabeen egoeran garrantzi ikaragarria duten hiru alderdi nabarmentzen ditugu, azterlan honetan aplikatu beharrekoak: adingabeen eskubideen barne legerian sartzea, adingabearen goi interesa aintzatestea erakunde publikoetan edo pribatuetan haurren gainean hartutako neurri guztietan, 3. CDNren 3. art., estatuek haurrak nahitaez babestu beharra, CDNren 19. art.

Konbentzio hori haurrei dagokien arau-esparruaren oinarria da.

Adingabe atzerritarrei dagokienez, garrantzizkoa da berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioa (CDNren 2. art.). Printzipio horrek berekin dakar adingabe atzerritarra ezin trata daitekeela Konbentzioaren barruko estatuko haur nazionalaren modu desberdinean. Adingabe orok ditu eskubide berak eta babes bera izan behar du, nazionalitatea edozein delarik ere. Ildo horretan, adingabearen goi interesaren printzipioa aplikatzeak ***"neurri aktiboak exijitzen ditu, dela adingabeak eta haien eskubideak babesteko***

[7] Irakaskuntzaren Arloko diskriminazioen kontrako borrokari buruzko konbentzioa 1960.

***eta haien biziraupena, hazkundea eta ongizatea sustatzeko, dela gurasoei eta haurraren eskubideak betetzeko ohiko erantzukizuna duten beste pertsona batzuei laguntzeko eta arreta emateko"***, Haurraren Eskubideen Batzordea, 7. Ohar Orokorra (2005). Neurriok haur guztientzat izan behar dute, jatorrien arabera bereizi gabe betiere.

Konbentzioko estatuek ***"Konbentzio honetan aintzatetsitako eskubideak eraginkortasunez aplikatzeko administrazio, lege eta bestelako neurri guztiak"* hartuko dituzte, *"baita eskuragarri dituzten ahalik eta baliabide gehien ere"*** CDNren 4. art.

Hauxe ezarri du Haurraren Eskubideen Batzordeak lagundu gabeko adingabeen eta jatorrizko herrialdeetako familiatik banaturiko adingabeen tratuari buruzko 6. Ohar Orokorrean: ***"Estatuaren barruko mugen barruan aplikatzen dira Estatuaren betebeharrak Konbentzioaren arabera, baita lurralde nazionalean sartzen saiatzean estatuko jurisdikzioaren menpe gelditzen diren adingabeei dagokienez ere".***

Hortaz, Haurraren Eskubideen Konbentzioa eta haurrak babesteko gainerako ordenamendu juridikoa edota 18 urtetik beherako adingabeen eskubideak aintzatesten dituen ordenamendua haur eta nerabe guztiei aplikatzen zaie, adingabearen jatorria edozein delarik ere.

Haurrei dagokien hainbat protokolo edo konbentzio dago. Hala, aukerakoez gain, hauexek daude: haurren salmentari, prostituzioari eta haurrak pornografian erabiltzeari buruzko protokoloa eta umeek gatazka armatuetan parte hartzeari buruzko protokoloa. Badira bestelakoak: Irakaskuntzaren Arloko diskriminazioen kontrako borrokari buruzko 1960ko Konbentzioa; Hagako Konbentzioa, gurasoen erantzukizunaren arloko eta haurrak babesteko neurrien gaineko eskumenari, lege aplikagarriari, aintzatespenari, betearazpenari eta lankidetzari buruzkoa; Beijingeko arauak: Nazio Batuek Adingabeen Justizia Administratzeko emandako gutxieneko arau uniformeak, besteak beste.

Azken batean, haurrengan zuzeneko edo zeharkako eragina duten hainbat konbentzio, itun, etab. daude (esate baterako, Giza Eskubideen Europako Konbentzioa edo Iheslariaren Estatuari buruzko Genevako Konbentzioa), eta Nazioarteko Komunitateak tresna horiek gauzatu ditu pertsonen eskubideen alde egiteko. Haurren arloko tresna nagusia Nazio Batuen Haurraren Eskubideei buruzko 1989ko Konbentzioa da.

### 6.2. Europar Batasunaren esparru juridikoa

Europar Batasunaren adingabeen eskubideen babesa oinarrizko eskubideen babesarekin lotu beharra dago[8]. Europar Batasunaren erakundeek adingabeak ukitzen dituen araudia egin dute. Ildo horretan, Europako Parlamentuaren A-0172/92 Ebazpena aipatuko dugu, Haurraren Eskubideen Europako Karta onetsi zuena. Eskubideak aintzatestearen inguruko aurreko arau-testuak biltzen ditu tresna horrek, baina

[8] Lisboako Itunak Europako Batasunaren Ituna eta Europako Erkidegoaren Konstituzio Ituna aldatu zituen. 2007ko abenduaren 13an izenpetu zen Lisboan, eta hauxe ezarri du 6. artikuluan: "Batasunak 2000ko abenduaren 7ko Europa Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Kartan emandako eskubideak, askatasunak eta printzipioak aintzatesten ditu, Estrasburgon 2007ko abenduaren 12an onartu zen moduan. Hala, Itunen balio juridiko bera izango du.

Kartaren xedapenek ez dituzte inondik inora handituko Batasunaren eskumenak, Itunetan zehazturikoaren arabera.

Kartaren VII. Tituluko xedapen orokorren arabera interpretatuko dira Kartan emandako eskubideak, askatasunak eta printzipioak, betiere Kartan aipaturiko azalpenak kontuan izanik (xedapenen iturriak adierazten dituzte); izan ere, Titulu horretan eraentzen da xedapenen interpretazioa eta aplikazioa.

2. Batasunak bat egingo du Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenarekin. Atxikipen horrek ez ditu aldatuko itunetan zehazturiko Batasunaren eskumenak.

3. Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenak bermatzen dituen oinarrizko eskubideak eta Estatu kideetako konstituzioen tradizio komunen ondoriozkoak Batasunaren Zuzenbidearen barruan txertatuko dira printzipio orokor gisa".

bermeak ere gehitzen ditu hala nola Ombudsman edo haurren aldeko defendatzaileak ezartzea, baita gurasoen eta herri botereen betebeharrak eta erantzukizunak ere.

Azterlan honen xedeari zuzenean eragiten diola-eta, Europako Kontseiluaren ekainaren 26ko 97/C221/03 Ebazpena aipatuko dugu, hirugarren herrialdeetako lagundu gabeko adingabeei buruzkoa. Araudi horrek lagundu gabeko adingabeak tratatzeko jarraibideak biltzen ditu haien harrerari, egonaldiari eta itzulerari dagokionez, baita asiloa eskatzeko gauzatu beharreko izapideak ere.

Europar Batasuneko Justizia eta Barne Ministerioen Kontseiluak (JAI) Lagundu gabeko Adingabe Atzerritarrei buruzko Ekintza Plana onetsi zuen 2010eko ekainean: Batzordeak Europako parlamentuari eta kontseiluari eginiko jakinarazpena, lagundu gabeko adingabeen gaineko ekintza plana (2010-2014).

Plan horretan, beren beregi aipatzen ditu Batzordeak Nazio Batuen Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioko arauak. Batzordeak uste du lagundu gabeko adingabeen gaineko edozein ekintzaren gidari izan behar duela. Bestalde, EBren Oinarrizko Eskubideen Kartaz ari da. Planak jarduteko esparru bat ezartzen du lagundu gabeko adingabe atzerritarren inguruan. Hiru zutabe ditu. Planaren lehen zutabea jatorrizko herrialdeetako irteerako prebentzioa izango litzateke; hartara, ikasteko eta lan egiteko aukerak sortu behar dira adingabeen jatorrizko eskualde nagusietan. Hala, garapenerako kooperaziorako ahaleginei eustea aipatzen da, migrazioaren sakoneko zergatiak tratatzeko eta ingurune egokia sortzeko, garapen pertsonaleko eta bizi-maila duineko igurikapen onekin haztea ahalbidetuko diena adingabeei. Jatorrizko eta iragaitzako herrialdeetan sentsibilizazio eta trebakuntzako beharrezko jarduerak eta migrazio horrek dakartzan arriskuak ere aipatzen dira, baita pertsonen salerosketa ere. Bigarren zutabea adingabe izaeraren babesa da Europako lurraldean egon bitartean; horrek neurri egokiak dakartza, lege aldetik zein baliabideen aldetik (bizilekua...). Hirugarren zutabea itzultzeko planaren gainekoa da. Aukera gisara planteatzen da, eta adingabearen goi interesa kontuan hartuta balioetsi beharko da, betiere borondatezko itzulera lehenetsiz. Dokumentuan agerrarazi denez, adingabea ezin egotz daiteke senideren batekin edo izendaturiko tutorearekin edo itzulerako estatuko harrera instalazio egoki batzuetan itzuli ezean. Estatuek familien arrastoa jarraitzeko dituzten zailtasunak eta berme juridikoak aplikatzea ere aipatzen da, ***"adingabeak segurtasunez itzuli behar baitu, adingabearentzako modu egokian eta sexuen arteko berdintasuna errespetatuz".***

Aintzatespen hori garrantzizkoa da[9] Zuzentarauak itzulerari buruz ezarritakoak kontuan izanik.

Azkenik, Europar Batasunaren[10] Oinarrizko Eskubideen Karta aipatzea ere garrantzizkoa dela irizten diogu, zeren adingabeak entzuna izateko duen eskubidea, adingabearen goi interesaren aintzatespena eta gurasoekin harremanetan izateko eskubidea finkatzen baititu. Lehenago esan dugunez, Europar Batasunean aplikatu behar da karta hori; salbuetsita daude Polonia eta Britainia Handia[11].

---

9 Beren lurraldean legez kontrako egoeran dauden hirugarren herrialdeetako pertsonak itzultzeko prozedura eta arau erkideak, Europako Parlamentuak 2008ko ekainaren 18an emandako Lege Ebazpena. Beren lurraldean legez kontrako egoeran dauden hirugarren herrialdeetako pertsonak itzultzeko prozedura eta arau erkideei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandako Zuzentarau proposamenari buruzkoa (COM(2005)0391 – C6-0266/2005 – 2005/0167(COD).

10 24. art. EBko Oinarrizko Eskubideen Karta: "1. Haurrek euren ongizaterako beharrezko babesa eta zaintza izateko eskubidea dute. Haiei dagozkien gaietan izango da kontuan ongizate hori. Iritzia askatasunez eman ahal izango dute, eta iritzi hori haurren adinaren eta heldutasunaren arabera izango da aintzat.

2. Haurren inguruan agintari publikoek edo erakunde pribatuek buruturiko ekintza guztietan, lehentasunezkotzat joko da haurraren goi interesa.

3. Haur orok izango du aitarekin eta amarekin aldian-aldian zuzeneko harreman pertsonalak izateko eskubidea, haurraren interesen kontra doanean izan ezik".

11 Europar Batasunaren oinarrizko eskubideen karta Polonian eta Erresuma Batuan aplikatzeari buruzko protokoloa.

# 7. ADINGABEEI ESPAINIAKO ESTATUAN APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

## 7.1. Hitzaurrea

Lagundu gabeko adingabe atzerritarren egoera araupetzen duen araudia alde batetik adingabe guztien eskubideak arautzen dituena da, haien jatorria edozein delarik ere; gainera, administrazio eskudunak adingabea nahitaez babestu beharra ezarri du adingabea babesik gabe egotearen berri duenean. Bestetik, adingabe horien administrazio egoera araupetzen du adingabe atzerritarrak diren aldetik.

Garrantzizkoa da ohartaraztea atzerritarra izateak jasotzen duten tratuari eragiten diola. Espainiako atzerritarren eskubideei eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoak, funtsean, adingabeei ordenamendu juridikoan aintzatetsitako eskubideak ditu kontuan. Hala ere, atzerritar helduak izatearekin lotutako kontzepzioak eta jarduketak adingabeen egoerara estrapolatzen dira eta, beraz, atzerritar helduei ematen zaien tratamenduak baldintzatuta daude adingabe atzerritarrekin lotutako jarduketak, baina adingabeak izateak ezaugarri nagusia izan beharko luke tratamenduan.

Honako atal honetan, adingabeez (atzerritarrak izan arren) ari garela aplikatu beharreko babesari buruzko legeria zein den azalduko da, eta ondoren, bigarren zatian, lan enpirikoarekin erkatuko da ea legeria aplikatzen ari den edo ez den betetzen ari.

## 7.2. Adingabeak babesteko estatuko eta autonomiako legeria

Estatuko araudi nagusia Kode Zibila eta Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoa da.

Kode Zibilean ezarrita dagoenez (172. artikulua), ministerioak adingabea babestu behar du nahitaez administrazio eskudunak adingabea babesik gabe dagoela egiaztatzen duenean. Adingabea babesik gabe egoteak babesa bere gain harrarazten dio administrazioari. Herrialdean dauden adingabe atzerritarrek, erreferentziarik gabeko pertsona heldu bat ez badute eta polizi bulegoetara edo babes zentroetara jotzen badute, babesik gabekotzat joko dira eta, beraz, Ministerio Fiskalak adin nagusikoak direla ezarri ezik, herri erakunde eskudunaren babesa jaso behar dute; gure kasuan foru aldundiek eman behar diete babesa.

Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoak adingabeen eskubideak eta haurrak eta nerabeak babesteko sistemaren bermeak eta printzipioak araupetzen ditu. Beren beregi aipatzen da adingabe guztiei aplikatu beharrekoa dela, haien jatorria edozein delarik ere.

Konstituzioak emandako eskumenen esparruarekin bat etorrita (EEren 149.1.8 eta 149.1. 18 eta 149.3. artikuluak), Estatuak eskumen esklusiboa du legeria zibilean, autonomia erkidegoetan eskubide zibilak, foralak edo bereziak atxikitzeari, aldatzeari eta garatzeari kalterik egin gabe.

Hala ere, arlo horretako legeak eman dituzte autonomia erkidego guztiek 148.1.20. artikuluaren itzalpean. Artikulu horren arabera, ondoko arloetako eskumenak har ditzakete beren gain autonomia erkidegoek: 20. Gizarte laguntza. Beraz, Kode Zibilaren 172. artikulua aplikatu behar da, baina autonomia erkidegoek ere haurren eta nerabeen babesari eragiten dion araudia gauzatu eta beren araudia eta babeserako esparru autonomikoa garatu dute, autonomia erkidegoaren araberako eredu desberdinak dituen araudia daukana. Hori oso garrantzizkoa da lagundu gabeko atzerritar adingabeen arretan eta adingabeak erkidegoen artean lekuz aldatzean.

### *Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan Haurren eta Nerabeen Arretari eta Babesari buruzko otsailaren 18ko 18/2005 Legea aplikatu behar da*

Lege horrek eskumenen eta erakundeen esparrua eta jarduteko printzipioak zehazten ditu haurren eta nerabeen arretan eta babesean Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan. Zioen Azalpenak dakarrenez, hiru helburu ditu Legeak:

a) Konstituzioak, Nazio Batuen Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioak, Haurraren Eskubideen Europako Kartak eta oro har ordenamendu juridikoak aintzatesten dituen eskubideen erabilera bermatzea Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko lurraldeko haurrei eta nerabeei, egoiliarrei zein ibiltariei.

b) Haurren eta nerabeen eskubideak eta ongizatea sustatzeko jarduerak burutu behar diren jarduketa-esparrua ezartzea, baita haien arretarako eta babeserako jarduerak ere, familian eta gizartean duten garapena bermatze aldera.

c) Arriskuan edo babesik gabe dauden haurrak eta nerabeak babestearen eremuko jarduketa-printzipioak eta eskumenen eta erakundeen esparrua zehaztea, baita adingabe arau-hausleekin esku hartzeko esparruari dagokiona ere.

Lagundu gabeko adingabe atzerritarrekin jardunean diren administrazioen eskumenen araubideari dagokionez, foru aldundien eskumenak dira nagusiki. Gizarte Zerbitzuen Lege berriak garatu du eskumenen esparrua, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeak hain zuzen. Lege hori betez: Gizarte-hezkuntzako jarduketaren eta jarduketa psikosozialaren zerbitzua udaletako oinarrizko gizarte zerbitzuei

dagokie (udaleko gizarte zerbitzuak); babesik gabeko haurren arreta foru aldundiei dagokie, foru gizarte zerbitzuen bitartez eman beharrekoa, eta zehazkiago, bigarren mailako arretarako gizarte zerbitzuei: gizarte zentroak, informazio zerbitzua eta famili harrera eta adopzioa sustatzeko eta bultzatzeko zerbitzuak ematen ditu. Haurrei eta nerabeei dagokien lege ekimena, arauak emateko ahalmena eta jarduketa eta zerbitzuen plangintza orokorra egitea, berriz, Eusko Jaurlaritzari dagokio, autonomia esparruko gizarte zerbitzuen bidez eman beharrekoa.

Lege horrek adingabea famili gunetik banatzeak dakartzan neurriak araupetzen ditu, hala nola: famili harrera, egoitzako harrera eta adopzioa.

Egoitzako harrerakoa da lagundu gabeko adingabe atzerritarrei gehienbat eragiten dien neurria. Adingabea egoitza ingurune batean zaintzea dakar; izan ere, adingabearen beharren arreta osoa ematea da xedea. Egoitzako harrera gauzatu ahal izateko, famili integraziorako erakunde laguntzaileekin lankidetza hitzarmenak edo akordioak ezar daitezkeela xedatu da Legean, baina horrek ez dakar integrazioaren ondoriozko titularitatea eta erantzukizuna lagatzea. Administrazioak eta Ministerio Fiskalak ikuskapen-lanak egitea ezarri da legean.

Egoitzako harrera, gainera, dekretu baten bidez araupetu da, hain zuzen ere gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitzako harrerako baliabideak arautzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuaren bidez.

Dekretuaren xedea da egoitzek materialen, funtzioen eta pertsonalaren aldetik bete beharreko eskakizunak eta adingabeen eta haiei arreta ematen dieten profesionalen eskubideak eta betebeharrak araupetzea. Horretarako, zehazki araupetzen ditu zentro horiek bete beharreko bermeak.

Egoitzek hainbat programa gauzatzea ere aurreikusten du: larrialdien harrerakoak, orokorrak, emantzipaziorako prestatzekoak, emantzipaziokoak eta espezializatuak: jarrera arazoak dituzten nerabeen arretarakoak, jarrera arazo larriak dituzten nerabeentzako laguntza trinkokoak... Egoitzako egituren artean, egoitzak, harrera-pisuak, emantzipaziorako prestatzeko zentroak, emantzipazio-pisuak, etab. aurreikusten ditu.

Dekretuak zehazki araupetzen ditu garrantzi handiko kontuak hala nola arretaren faseak eta oinarrizko osagaiak, antolaketa, bizikidetzarako arauak, hezkuntza-neurri zuzentzaileak eta aplikazio-prozedura. 4 urteko epea ezarri du egoitza harrerak bete beharreko baldintzak betetzeko, baina badira salbuespenak.

Aipatu beharreko beste araudi garrantzitsu bat erantzukizun penalaren ondoriozko neurri judizialak betearazteko zentroak araupetzen dituena da. “Apirilaren 21eko 80/2009 Dekretua, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan askatasuna murrizteko neurriak bete behar dituzten ikastetxeei buruzkoa”.

### 7.3. Adingabea atzerritarra denean: Atzerritarren eskubideei eta betebeharrei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Organikoa

Espainiako atzerritarren eskubideei eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Legeak eta horren ondoz ondoko aldaketek hauexek araupetzen dituzte, besteak beste: adingabe atzerritarren eskubideak, sarrera eta egonaldia; lan egiteko baimena eskuratzea; familia batzeko eskubidea… Horiek guztiak garrantzi handikoak dira atzerritarrentzat. Legeak hainbat alditan aipatzen ditu adingabe atzerritarrak, adibidez, adingabeen eskubideak araupetzean. Zehazkiago, hezkuntza eskubidea eta osasun arretarako eskubidea arautzean. Hala, 21. artikuluan, osasun arretarako eskubidea bermatzen die

Espainian dauden hamazortzi urtetik beherako adingabe atzerritarrei, espainiarren[12] baldintza beretan. 9. artikuluan, berriz, hezkuntza eskubidea[13] ezarri da. Atzerritarrek herri administrazioekin dituzten harremanen esparrua araupetzen du Legeak eta, beraz, berebiziko garrantzia dauka eskubideak erabiltzeko eta harrerako gizartean harremanak izateko.

Adingabe atzerritarrak direnez gero, lehenago esan dugunez, araudi hori eta oro har immigrazio politikak oso aintzat hartzen dira gaia jorratzean. Ez gara mugatuko araudiaren azterlan zehatza egitera; ikerketa honen xedeari eragiten dieten arauak hartuko ditugu ardatz, hots, lagundu gabeko adingabe atzerritarren gainean ezarritakoak. Adingabe atzerritar bat aurkitzen denean izan beharreko egoera eta prozedura garatzen duen artikulua dugu 35. art., azken erreforman aldatu dena (abenduaren 11ko 2/2009 Lege Organikoa, Espainiako atzerritarren eskubideei eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren erreformari buruzkoa). Lagundu gabeko adingabe atzerritar bat aurkitzean abiarazi beharreko jarduketak ezarri ditu artikulu horrek[14]. Legea garatzeko arautegia onesteke dagoenez gero, indarrean jarraitzen du[15] abenduaren 30eko 2393//2004 Errege Dekretuak onetsitako arautegiaren 92. artikuluak; Dekretu horrek Espainiako atzerritarren eskubideei eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Arautegia onetsi du. Araudiak araupetzen dituen gai garrantzitsuenen artean, ondokoak nabarmenduko ditugu, azterlan honen xedeari eragiten diotelako.

- Segurtasun indarrek eta kidegoek adingabe atzerritarra aurkitzea.
- Horren berri ematea Ministerio Fiskalari, adina zein den jakiteko probak agindu ditzan.
- Adingabea dirudien edo adingabea dela dioen pertsona haurrak babesteko zerbitzura edo izendaturiko egoitzara eramatea.
- Adina ezartzeko probak egitea, hala denean, adingabea dela egiaztatzeko.
- Adingabea identifikatzea (Arautegiaren 111. art.)

---

[12] 12. artikulua. Osasun laguntzarako eskubidea

(…)

3. Espainian dauden hamazortzi urtetik beherako atzerritar adingabeek osasun laguntzarako eskubidea dute espainiarren baldintza beretan.

(…)

[13] 9. artikulua. Hezkuntzarako eskubidea.

1. Hamasei urtetik beherako atzerritar adingabeek hezkuntza eskubidea eta betebeharra dute, oinarrizko, doako eta nahitaezko irakaskuntza eskuratzea barne. Hamazortzi urtetik beherako atzerritar adingabeek DBH ondoko irakaskuntzarako eskubidea dute. Eskubide horren barruan, titulazio akademikoa lortzea eta beka eta laguntzen sistema publikoa eskuratzea sartzen da espainiarren baldintza beretan. Ikasturtean hamazortzi urteko adina betetzen badute, ikasturtea amaitu arte atxikiko dute eskubide hori.

2. Espainian dauden hamazortzi urtetik gorako atzerritarrek hezkuntza eskubidea dute, hezkuntzaren legerian ezarritakoarekin bat etorriz. Nolanahi ere, hamazortzi urtetik gorako atzerritar egoiliarrek DBH ondoko gainerako etapetan eta beken sistema publikoan ikasteko eskubidea dute, baita titulazioak lortzeko ere, espainiarren baldintza beretan.

[14] Lagundu gabeko adingabeak. 35. art.: “1. Gobernuak lankidetza hitzarmenak ezartzea sustatuko du oso-osorik immigrazio irregularren prebentzioa eta lagundu gabeko adingabeen babesa eta itzulera aurreikusten ez duten jatorrizko herrialdeekin. Autonomia erkidegoek akordio horien gaineko informazioa jasoko dute.

2. Autonomia Erkidegoek akordioak ezarri ahal izango dituzte jatorrizko herrialdeekin, adingabeen arreta eta gizarteratzea jatorrizko herrialdearen inguruan egiten daitezen. Akordio horiek behar bezala ziurtatuko dute adingabeen interesen babesa, eta autonomia erkidegoek haien egoeraren jarraipen egokia egin dezaten mekanismoak ezarriko dituzte.

3. Baldin eta Estatuko Segurtasun Kidegoek eta Indarrek dokumentaziorik gabeko atzerritar bat aurkitu eta zein adin duen argi esaterik ez badago, behar duen berehalako arreta emango diote adingabeak babesteko zerbitzu eskudunek, adingabearen babes juridikoari buruzko legerian ezarritakoaren arabera, eta horren berri emango zaio berehala Ministerio Fiskalari. Azken horrek adina zehaztuko du osasun erakundeen laguntzaz. Horretarako, beharrezko probak egingo dituzte lehentasunez.

- Adingabea itzultzea bidezkoa den ala ez baloratzea, bermeak…
- Foru aldundi eskudunak babes-espedientea izapidetzea eta ebaztea.
- Adingabearen administrazio egoera erregularizatzea, baina aurretik eskaera egin behar zaio Gobernuaren Ordezkariordetza eskudunari.
- Entzuna izateko eta defentsa izateko eskubidea[16]…

Gai horietako zenbaiten azterketa enpirikoa egin da; lan honen II. zatian aztertuko ditugu emaitzak.

---

4. Adina ezarri ondoren, adingabea bada, adingabea dagoen autonomia erkidegoko adingabeak babesteko zerbitzu eskudunen esku utziko du Ministerio Fiskalak.

5. Estatuko Administrazioak adingabearen famili inguruabarrei buruz eskatuko diote jatorrizko herrialdearen ordezkaritza diplomatikoari adingabea aberriratzeko prozesua hasteko erabakia hartu baino lehen, betiere adingabeari entzun ondoren, nahikoa zentzun badu. Adingabeak babesteko zerbitzuen eta Ministerio Fiskalaren txostenak baino lehen, bidezkoa dena ebatziko du Estatuko Administrazioak jatorrizko herrialdera itzultzearen inguruan, senideak dauden herrialdera hain zuzen edo, hori ezean, Espainian izatearen inguruan. Adingabearen goi interesaren printzipioaren arabera, adingabea bi modutan aberriratuko da jatorrizko herrialdera: familia batuta edo adingabea adingabeak babesteko zerbitzuaren esku jarrita, betiere zerbitzu horren babespean jartzeko baldintza egokiak baldin badaude.

6. Hamasei urtetik gorako eta hamazortzi urtetik beherako adingabeei, artikulu honetan ezarritako aberriratze-prozeduran jarduteko ahalmena aintzatetsiko zaie, baita xede bereko administrazioarekiko auzialdi jurisdikzionaleko ordenan ere, eta beraien izenean edo izendaturiko ordezkariaren bitartez jardun dezakete.

Hamasei urtetik beherakoak direnean eta nahikoa zentzun dutenean, baldin eta haien babesa edo ordezkaritza dutenaren kontrakoa adierazi badute euren borondatez, eten egingo da prozedura haiek ordezkatuko dituen defendatzaile judiziala izendatu arte.

7. Erregulartzat joko da, ondorio guztietarako, Espainian herri administrazio batek babestutako adingabeen egoitza edo, epailearen ebazpena dela bide, beste edozein erakundek babestutakoa. Babesa erabiltzen duen erakundeak eskatuta eta familia edo jatorrizko herrialdera itzultzerik ez dutela egiaztatu ondoren, egoitza baimena emango zaio adingabeari, eta horren ondorioak adingabeak babesteko zerbitzuen eskura jartzen den unera eramango da atzera. Egoitza baimenik ezak ez du galaraziko adingabea izateagatik dagozkion eskubide guztiak aintzatestea eta erabiltzea.

8. Egoitza baimena ematea ez da izango eragozpen adingabea azkenean aberriratzeko adingabearen goi interesa errazten badu, artikulu honetako laugarren idatz-zatian ezarritakoaren arabera.

9. Arauetan ezarriko dira egoitza baimenaren jabe eta egoitza eta lan baimena berritzeko edo eskuratzeko adin nagusikoak diren babestutako adingabeek bete beharreko baldintzak, betiere erakunde publiko eskudunek ondorio horietarako eman ditzaketen txosten positiboak kontuan izanik, hala denean, hain zuzen adingabeak gizarteratzeko egiten dituen ahaleginei eta egiten ari den prestakuntza edo ikasketen jarraipenari buruzko txostenak, baita lan-merkatuan modu eraginkorrean edo potentzialean sartzeari buruzkoak ere. Autonomia Erkidegoek beharrezko politikak garatuko dituzte adingabeak laneratzeko adin nagusikoak izatera iristen direnean.

10. Estatuko Segurtasun Kidegoek eta Indarrek beharrezko neurriak hartuko dituzte dokumentaziorik gabeko atzerritar adingabeak identifikatzeko, haiek babesteko ardura duen nazioko edo kanpoko erakunde publiko batean adingabeei buruz egon litezkeen erreferentzien berri izate aldera. Datu horiek ezin izango dira erabili idatz-zati honetan ezarritakoa ez bestelako helburutarako.

11. Estatuaren Administrazio Orokorrak eta autonomia erkidegoek hitzarmenak egin ditzakete adingabeak babesteko lana egiten duten gobernuz kanpoko erakundeekin, fundazioekin eta erakundeekin, lagundu gabeko atzerritar adingabeen ohiko babesa emate aldera.

HItzarmen bakoitzean, erakundeak bere gain hartzeko hitzartutako adingabeen kopurua zehaztuko da, baita bizilekua eta adingabeei arreta emateko bitarteko materialak ere.

Adingabearen zaintza duen autonomia erkidegoa legitimatuta egongo da babesa ezartzeko. Horretarako, adingabea biziko den tokiko epaitegi eskudunera jo beharko du, eta hitzarmena eta adingabearen babesa bere gain hartuko duen erakundearen adostasuna gehituko ditu.

Kode Zibilean eta Auziperatze Zibileko Legean ezarritakoa izango da babes araubidea, eta Kode Zibilean eta arloko indarreko legerian adingabeak babesteko ezarritako gainerakoak aplikatuko zaizkie lagundu gabeko adingabeei.

12. Autonomia erkidegoek akordioak egin ditzakete lagundu gabeko atzerritar adingabeak dauden autonomia erkidegoekin, adingabeei gizarteratzeko baldintza hobeak eskaintzen zaizkiela bermatzeko"

[15] Espainiako atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Arautegia onetsi duen abenduaren 30eko 2392/2004 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Arautegiaren 92. art.

[16] Ikusi Auzitegi Gorenak 2008ko abenduaren 22an emandako epaiak, babes eskeko errekurtsoa, 3321-2007 eta 3319-2007.

# II. zatia:

# LAGUNDU GABEKO ADINGABE ATZERRITARREI BURUZKO AZTERLAN ENPIRIKOA (2006-2007)

## 8. ERABILITAKO METODOLOGIA ETA PROZEDURA

### 8.1. Hitzaurrea

Kapitulu honetan, EAEko lagundu gabeko adingabe atzerritarrei eta babes sistemarekin duten erlazioari buruzko azterlan enpirikoaren emaitzak emango ditugu. Horretarako, haien estatutu juridikoa eta pertsonala osatzen duten ezaugarri nagusien azalpen zehatza egiten da (babes sistema eskuratzea, sistema horren prestazioak –ostatua, hezkuntza eta osasuna–, aurreikusitako babes sistema, aberriratze politikak, erregularizaziorako aukerak, laneratzea eta helduen adinera igarotzea), hots, adingabeak polizia-etxeetan (edo Larrialdiko Udal Zerbitzuan, Araban gertatzen den moduan) sartzen direnetik itzultzen diren arte.

Ondoren azalduko diren datuak hiru aldundietako Haurren Zerbitzuetako espedienteen laginaren azterketaren ondorioz lortu dira, zehazkiago Egoitza Harrera Unitatekoak -Haurren Zerbitzua-. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila; Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamenduko Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuburua eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizateko Foru Erakundea –Haurren Foru Zerbitzua–.

## 8.2. Lagina eta prozedura

### 8.2.1. Unibertsoa

Lagunduta ez zeuden eta hiru aldundietako babes sistemek 2006an eta 2007an hartu zituztene adingabe atzerritarrek osatzen dute azterlan honen xedeko populazioa.

Azterlan honek izan zuen lehen zailtasuna babes sistemaren arreta jaso zuten pertsona guztiei buruzko datua lortzea izan zen, halako moldez non lagin adierazgarri baten tamaina ezartzeko modua izango baitzen. Arazo nagusia iturrien aniztasunean zetzan, zehazkiago iturriek emandako kopuruak bat ez zetozelako. Azkenik, Arartekoak emandako kopurua hartu zen daturik fidagarrientzat, hain zuzen ere "Eusko Legebiltzarrarentzako 2007ko Txostena"[17] delako horretan ezarritako datuak. Hala, 839 lagun finkatu dira lan honen unibertso osoan 2006. urterako, eta 963 pertsona 2007rako, ondoko fitxa teknikoan ezarritakoaren arabera.

| FITXA TEKNIKOA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Urtean harreran izandako adingabeen guztizko kopurua | LURRALDE HISTORIKOA | | | |
| | Gipuzkoa | Bizkaia | Araba | Guztira |
| 2006ko datuak | 175 | 610 | 54 | **839** |
| 2007ko datuak | 197 | 707 | 59 | **963** |

Iturria: Arartekoa, Eusko Legebiltzarrarentzako ohiko txostena, 2007.

### 8.2.2. Lagina

Lagina egitean, osagai independentetzat jo ziren urteetako historiak edo espedienteak, hots, historia guztiak dira ezberdinak, adingabe berarenak izan daitezkeen ala ez aintzat hartu gabe. Urteek eta lurralde historikoek elkarren antz handia duten historiak dakartzaten taldeak ere hartu dira kontuan; izan ere, gainerako taldeetatik bereizten dira.

Horrexegatik, esleipen proportzionala zuen ausazko laginketa bat egiteari iritzi zitzaion egokien. Berrerazpenik ez duen laginketa da, 1.802 historia dituen populazioa dela kontuan izanik, betiere aldakortasunik handiena abiapuntu hartuta (p=0,5) eta %5eko errore-mailarekin. Kalkulaturiko laginaren barruan sartzen diren kasuak atera dira, ausazkotasunerako estrategia jakin batekin.

Irizpide horiek izanik, %95eko konfiantza-mailan, 317 historiako gutxieneko tamaina ezarri da. Azterlanean, azkenean, estratuen arabera banaturiko 329 historiako tamaina erabili zen (urtea eta lurralde historikoa), ondoren agertzen den moduan:

| Lurralde historikoa | 2006 | 2007 | Guztira |
|---|---|---|---|
| Araba | 30 | 36 | 66 |
| Bizkaia | 127 | 112 | 239 |
| Gipuzkoa | 14 | 10 | 24 |
| **GUZTIRA** | **171** | **158** | **329** |

[17] Arartekoa. Eusko Legebiltzarrarentzako ohiko txostena, 2007, 321, 327 orr.

Azterlanaren emaitzen atalaren hasieran begiratu daitezke 329 historiako lagin horren oinarrizko ezaugarriak; zehazki aurkeztu beharreko lehen sekzioak jorratzen dira atal horretan: generoa, adina eta laginaren ezaugarri nagusiak diren bestelako gizarte-demografiako kontuak.

8.2.3. Prozedura

Azterlan honetan erabilitakoa moduko informazio sentikorra izanik, zaila izan zen datuak eskuratzeko baimenak lortu ahal izatea. Hiru aldundiei baimenak formalki eskatzen hasi zitzaien Arartekoaren erakundea, ikerlari-taldeak espediente guztietan sartzeko modua izan zezaten, eta onartu egin ziren eskaerok. Baimen horiei esker, dokumentazioa artxibatuta zegoen tokietara joan ahal izan ziren ikerlariak, beharrezko datuak aztertzeko eta informazioa biltzeko fitxa batean biltzeko. Fitxa hori zehazki azalduko da ondoren “materialak” izeneko atalean. Bildutako datuak SPSS estatistika azterketako programaren bidez prozesatu ziren.

**Halaber, informazio guztia datuen babesaren arloko arau guztiak errespetatuz bildu da, eta kasu bakoitza halako moldez kodetu da non ez baitago identifikazio pertsonalerako posibilitaterik.**

Informazioa biltzean izan dugun zailtasunetako bat kasu askotan informazio jakinen bat ez edukitzea izan da. Hala eta guztiz ere, nabarmendu beharra dago lagineko subjektuek informazio zehatza dutela. Horixe da, hain zuzen ere, gaiaren gainean egin ahal izan diren lan enpirikoetako bat, datuak biltzeko izandako zailtasunak gorabehera.

Horregatik, mugak izanik ere, bertute bat dauka azterlanak: gaia praktikatik aztertu ahal izan duten lan apurretako bat izatea.

## 8.3. Materialak

Lehenago esan dugun moduan, datuak biltzeko fitxa izan zen informazioa jasotzeko oinarrizko tresna, ikerlari-taldeak propio egina. II. eranskinean kontsultatu daiteke fitxa.

Ondoren, **1. Fitxaren** barruko aldagaien zehaztasunak emango dira:

| 1. FITXA |
|---|
| a) Adingabearen gizarte-demografia profila: adina, sexua… eta zentroan sartzearen baldintzak |
| b) Administrazio kudeaketak eta lege kontuak |
| c) Babes ibilbidea |
| d) Egoitza testuingurua |
| e) Estola/ikasketa testuingurua |
| f) Lan testuingurua |
| g) Osasuna |
| h) Tutoretzari uztea |

## 9. AZTERLANAREN EMAITZAK

Jarraian, bildutako eta azterturiko datuen azterketaren ondoriozko emaitza nagusiak emango dira. Arestian zehaztu dugunez, MENA taldekoen 329 historiarekin osatuta dago lagina, 2006 (149) eta 2007 (171) arteko epealdian.

Azterlan honen xedea azalpena ematekoa dela gogoratu beharra dago. Horrexegatik, babes sistemaren barruko praktikaren hainbat alderdi zenbatu nahi dira emandako datuekin, adingabeen harrerari dagokionez betiere.

Lorturiko emaitzen azterketa emateko lan honetan ezarritako ordena bat dator adingabeek, zerbitzuan sartzen direnetik irteten direnera arte, egiten duten ibilbidearekin, babes sistemaren barruko ibilbidearekin. Beraz, lehenik eta behin 329 historiako laginaren oinarrizko datu nagusiak eskainiko dira, eta ondoren, bestelako datuak emango dira: administrazio gestioak eta lege kontuak, babeserako ibilbidea, egoitza testuingurua, eskola/ikasketa testuingurua, lan testuingurua, osasuna eta tutoretzari uztea.

Horri dagokionez, zenbait kontu zehaztu nahi ditugu, irakurleak errazago irakurri eta behar bezala uler ditzan. Ematen diren tauletan eta irudietan, kontrakoa adierazi ezik, lagin osoaren datuak erabili dira horiek guztiak egiteko, eta lurralde historiko jakin bati buruzkoak badira, lurraldeari dagozkion historia guztienak. Hala ere, ikerlariek eskuratu ahal izan zuten dokumentazio artxibatuan, askotan, ez zegoen historiari buruzko zenbait datu. Hortaz, intereseko zenbait aldagaitan, historia batzuek eta ez guztiek emandako datuak baino ez daude. Halakoetan, lagin baten zati baten datuak ez dakizkigunean, halaxe zehazten da taularen edo irudiaren oinean.

Aurrekoarekin lotutako beste kontu bat ondorioen balizko orokortzearen gainekoa da. Zenbait alda-

gaitan galdutako balioen (ez daude eskuragarri orain) kopuru handia dela-eta, historien kopuru murriztuan oinarrituriko zenbait emaitza daude. Datu positiboa edo negatiboa izan daiteke, baina nolanahi ere, ezinezkoa zaie ikerlariei jakitea historia kopuru handian datua ez biltzeko arrazoiak eta, beraz, ezinezkoa da jakitea kasuan kasuko emaitzak laginaren gainerako zatien errealitatea zein neurritaraino azaltzen duen. Horregatik, laginaren zati txiki batean oinarrituriko emaitza horien ondorioak interpretatzean edo ateratzean, kontu handiz jokatu beharra dugu, eta irakurleak ere bai.

Jarraian, ohar horiek eginda, lagina osatzen duten historietan aipatzen diren adingabeen gizarte-demografiako profilaren oinarrizko datuak emango ditugu –emaitzen sekzioko lehenbiziko ataletan–, baita zentroan sartzearen xede nagusia ere. Azken hori adingabea larrialdiko harrerako egoitzan edo zentroan sartzeko neurriaren xedeari buruzkoa da; ebazpenean eta aurretiazko txostenean egon behar du dokumentatuta sarrerak. Hala, adingabe horien generoari, adinari eta adina ezartzeko auzitegiko medikuaren probei, nazionalitateari, dokumentazioari, jaiotegunari eta jaioterriari buruzko datuak emango dira. Lehen sarreraren data, babes sisteman sartu aurreko jatorrizko zerbitzuak, herrialdean sartzeko garraiobideari buruzko xehetasunak, adingabeen hizkuntza mailari buruzko datuak, adingabearen lehen hizkuntza eta beste hizkuntza batzuk jakitea ere sartzen dira.

Gehienbat aztertutako historiak dituzten adingabeen profila azaltzeko sekzio horien ondotik, adingabeek babes sisteman sartu baino lehen eta sisteman sartu ondoren jarraituriko ibilbideak sakonduko ditu txostenak.

Adingabeek gure babes sisteman bizi izandakoari buruz historiek kontatzen dutena sakonduko da datozen ataletan, eta sekzioaren amaieran, MENA taldekoaren azterlanean izandako genero-ikuspegiari buruzko gaiak jorratuko dira.

## 9.1. Adingabearen profila: generoa, bizi den probintzia eta nazionalitatea

Gure azterlanaren emaitzen arabera, migrazio proiektu baten bila datorren gizonezkoa da Espainiako Estatura datorren MENA prototipikoa da. 1. taulan eta 1. irudian ikus daitekeenez, ia kasu guztietan, mutil bati buruzkoa da bilduko historia (%96), eta emakumezkoen presentzia oso txikia da (%4). Maila orokorrean zein lurralde historikoen maila betetzen da joera hori.

**1. irudia. Laginaren profila: generoa**




Iturria: Geuk eginikoa.

**1. taula. Laginaren profila: generoa lurralde historikoka**

| | Araba | | Bizkaia | | Gipuzkoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| |  |  |  |  |  |  |
| Adingabeen kopurua | 1 | 23 | 9 | 230 | 3 | 63 |
| Portzentajea generoaren arabera | %4,2 | %95,8 | %3,8 | %96,2 | %4,5 | %95,5 |

Iturria: Geuk eginikoa.

Nabarmendu beharra dago nesken kasua oraindik gure testuinguruan ikusten edo azaleratzen ez den gertaera dela, beharbada gure herrialdean duten presentzia sexu esplotaziorako pertsonen trafikoko sarearekin edo etxeko lanak betetzearekin inguruko pertsonekin lotuta egoten baita. Ondorioz, aurrera jarraitu beharko du neskekin izan beharreko gizarte-hezkuntzako esku-hartzeak eta hemen azaldutakoa ez bezalakoa izan behar du.

2. taulak erakusten duenez, nahikoa egonkor eutsi dio azterlaneko urte bakoitzean historien portzentajeari lurralde historikoen arabera, eta Bizkaikoak dira azterturiko historien %70 baino gehiago. Beraz, Bizkaiak hartzen du, zalantzarik gabe, beste bi lurralde historikoek baino askoz MENA gehiago.

**2. irudia. Adingabeen portzentajea egoitzako lurralde historikoaren arabera**




Iturria: Geuk eginikoa.

**2. taula. Lagineko adingabeak, urtearen eta lurralde historikoaren arabera**

| | 2006ko datuak | | | | 2007ko datuak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gipuzkoa | Bizkaia | Araba | Guztira | Gipuzkoa | Bizkaia | Araba | Guztira |
| Adingabeen kopurua | 30 | 127 | 14 | **171** | 36 | 112 | 10 | **158** |
| Urte bakoitzeko portzentajea | %17,5 | %74,3 | %8,2 | **%100** | %22,8 | %70,9 | %6,3 | **%100** |

Iturria: Geuk eginikoa.

Nazionalitateari dagokionez, 3. taulak eta 3. irudiak erakusten dutenez, marokoarrak dira azterturiko historiak dituzten MENA taldeko gehienak, alde handiarekin beste nazionalitate batzuekiko; izan ere, guztizkoaren %78,1 dira. Bigarren nazionalitatea errumaniarrena da; laginaren guztizkoaren %4,9.

**3. taula. Adingabeen nazionalitatea: EAE-ko datu orokorrak**

| Adierazitako nazionalitatea | Kasu kopurua | Portzentajea |
|---|---|---|
| Ezezaguna | 3 | %0,9 |
| Aljeriarra | 12 | %3,6 |
| Brasildarra | 1 | %0,3 |
| Kamerundarra | 4 | %1,2 |
| Ghanatarra | 11 | %3,3 |
| Ginearra | 6 | %1,8 |
| Italiarra | 1 | %0,3 |
| Maltarra | 1 | %0,3 |
| Bolikostarra | 2 | %0,6 |
| Marokoarra | 257 | %78,1 |
| Moldaviarra | 3 | %0,9 |
| Pakistandarra | 1 | %0,3 |
| Palestinarra | 1 | %0,3 |
| Errumaniarra | 16 | %4,9 |
| Errusiarra | 1 | %0,3 |
| Sahararra | 5 | %1,5 |
| Senegaldarra | 4 | %1,2 |
| **Guztira** | **329** | **100** |

Iturria: Geuk eginikoa.

**3. irudia. Nazionalitatea: EAE-ko datu orokorrak**




Iturria: Geuk eginikoa.

Adingabeen nazionalitatea zehazki aztertzen badugu eta lurralde historiko bakoitzeko babes sistemak banaka hartzen baditugu, kasu guztietan gehienak marokoarrak direla ikusiko dugu.

**4. taula. Adingabeen nazionalitatea, lurralde historikoen arabera**

| | Gipuzkoa | | Bizkaia | | Araba | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Nazionalitatea** | **Kasu kop.** | **Portzentajea** | **Kasu kop.** | **Portzentajea** | **Kasu kop.** | **Portzentajea** |
| Ezezaguna | 1 | %1,5 | 2 | %0,8 | | - |
| Aljeriarra | 3 | %4,5 | 8 | %3,3 | 1 | %4,2 |
| Brasildarra | 1 | %1,5 | | | - | - |
| Kamerundarra | 1 | %1,5 | 3 | %1,3 | - | - |
| Ghanatarra | - | - | 8 | %3,3 | 3 | %12,5 |
| Ginearra | - | - | - | - | 6 | %25 |
| Italiarra | - | - | 1 | %0,4 | - | - |
| Maltarra | - | - | 1 | %0,4 | - | - |

| | Gipuzkoa | | Bizkaia | | Araba | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Nazionalitatea | Kasu kop. | Portzentajea | Kasu kop. | Portzentajea | Kasu kop. | Portzentajea |
| Bolikostarra | 1 | %1,5 | - | - | 1 | %4,2 |
| Marokoarra | 48 | %72,7 | 199 | %83,3 | 10 | %41,7 |
| Moldaviarra | - | - | 3 | %1,3 | - | - |
| Pakistandarra | - | - | 1 | %0,4 | - | - |
| Palestinarra | 1 | %1,5 | - | - | - | - |
| Errumaniarra | 6 | %9,1 | 10 | %4,2 | - | - |
| Errusiarra | 1 | %1,5 | - | - | - | - |
| Sahararra | 1 | %1,5 | 1 | %0,4 | 3 | %12,5 |
| Senegaldarra | 2 | %3 | 2 | %0,8 | - | - |
| **Guztira** | **66** | **%100** | **239** | **%100** | **24** | **%100** |

Iturria: Geuk eginikoa.

### 9.2. Adingabearen profila: adina

Lagundu gabeko adingabe atzerritarren arloan juridikoki garrantzizkoa den bigarren kontua adingabekoa izatea egiaztatzea da. "Adingabea" bada eta haren kargura egon ohi diren pertsona helduengandik banatuta badago "lagundu gabe" edo babesik gabekotzat joko da eta, ondorioz, administrazioak bere gain hartuko du adingabearen babesa, betiere adingabea emantzipatuta ez badago.

Identifikazio-agiri baten bidez egiaztatu ohi da atzerriaren adina, identitatea bezala; pasaportea edo baliozko beste edozein agiri izan ohi da, baina adingabeek adina egiaztatzen dutenean, atzerritarraren legeria nazionalak baliozkotzat jotzen duen beste edozein identifikazio-agiri onartzen da alde horretatik. Agiriari esker, modu sinesgarrian jakin daiteke adingabearen adina zein den.

Alabaina, jakinekoa denez, adingabeak modu irregularrean sartu ohi dira gure herrialdean, dokumentaziorik gabe. Are gehiago, dokumentazioa botatzen dute adingabeei aplikatu beharreko araubide juridikoaren onura jaso ahal izateko. Izan ere, dokumentaziorik ez izateak ez dakar berekin lurralde nazionaletik urruntzeko neurriak aplikatzea zigor gisa (egoztea), baizik eta adingabearen famili integrazioagatik soilik. Estatuko segurtasun indarretako eta kidegoetako kideek atzemandako ustezko adingabe atzerritar asko, haien adina egiaztatu ondoren, adin nagusikoak izaten dira. Ustezko adingabe atzerritarraren benetako adina egiaztatzerik ez dagoenean, hain zuzen dokumenturik ez duelako edo aurkezten dituenak faltsuak direlako, adina ezartzea ahalbidetuko duten mekanismoak bideratu behar ditu ordenamendu juridikoak (beti ezin egiazta daiteke fidagarritasun eta zuzentasun osoz, geroago azalduko dugunez).

Hori dela-eta, lagundu gabeko adingabe atzerritar bat aurkitzen denean, lehenengo eta behin haren adina ezarri behar izaten da. Halaxe xedatu du estatuko legegileak 4/2000 Lege Organikoaren 35. artikuluan lagundu gabeko adingabeei buruz, abenduaren 11ko 2/2009 Lege Organikoa idatzi den moduan. Honelaxe dio hitzez hitz artikuluak: **"1. Baldin eta Estatuko segurtasun kidegoek eta indarrek dokumenturik gabeko atzerritar bat aurkitzen badute eta haren adina ziurtasun osoz ezartzerik ez badago,**

**adingabeak babesteko zerbitzu eskudunek beharrezkoa duen arreta emango diote berehala, adingabearen babes juridikoaren legerian ezarritakoarekin bat etorriz. Gertaera horren berri emango zaio berehala Ministerio Fiskalari, eta adina ezarriko du Ministerio Fiskalak, betiere lehentasunez beharrezko probak egingo dituzten osasun erakundeen laguntzaz (…)".**

**Adingabearen adina ezartzeak berebiziko garrantzia du, zeren horren araberakoa izango baita ustezko adingabearen kargu hartuko duen herri administrazioa.** Beraz, adina egiaztatu ondoren dokumenturik ez duen adin nagusiko atzerritar bat dela ezartzen bada, arau-hausle bihurtuko da berehala, Espainiako lurraldean egoera irregularrean dagoelako, hain zuzen LOEXISen 53.b) artikuluarekin bat etorriz. Jakinekoa denez, falta larria da hori, eta lurralde nazionaletik egoztea ekar lezake LOEXISen 57. artikuluaren arabera. Baldin eta, adina ezarri ondoren, adingabeko pertsona bat dugula berresten bada, kasuan kasuko autonomia erkidegoko Adingabeak Babesteko Zerbitzuen esku utzi beharko da.

Dokumenturik gabeko atzerritarra adingabea izatea irizpide determinantea da herri administrazioen arteko eskumenen banaketa egiterakoan. Atzerritarra adingabe izatea "ziurtasunez ezartzerik ez dagoen" egoerak aipatzen ditu LOEXISen 35. artikuluak. 35. artikuluko 1. idatz-zatia idatzita dagoen bezala, nahasgarria izan daiteke dokumenturik ez duen atzerritarraren administrazio erantzulea zein den jakiteko harik eta adin nagusikoa edo adingabekoa dela erabakitzen den arte. Izan ere, esaldi hau gehitu zaio idatz-zatiari: "behar duen berehalako arreta emango diote adingabeak babesteko zerbitzu eskudunek"[18]. Gure autonomia erkidegoko babeserako erakundeak (foru aldundiak) neska-mutilen kargua beren gain hartzen ari dira adina ezarri arte, fiskaltzaren aginduaren bidez, adin nagusikoa dela erabakitzen bada.

Horrexegatik, adina aldagai berezia da azterlan honetan, zeren datu horrek hainbat iturri baititu adingabe askorentzat. Alde batetik, adingabeak berak adierazitako adina; bestetik, proba medikoen bidez ezarritakoa (hezur-probak). Bestetik, adinari buruzko datuak iturriaren arabera ematen dira, eta iturriak ez datoz bat adingabe berari buruzko datuak eskuragarri daudenean.

### 9.2.1. Adingabeak adierazitako adina

306 adingabeen datua dugu kasu honetan (laginaren %93). 12 eta 18 urte bitarteko adinak izaten dira, eta **16,1 urtekoa** da adingabeek eurek adierazitako batez besteko adina.

### 9.2.2. Hezur-proben bidez kalkulaturiko adina

Ikerketan jakin ahal izan denez –zeren eta datu hori adingabeen historietan jasota baitzegoen–, 79 adingaberekin egin zen proba (laginaren guztizkoaren %24,6; proba hori egin den ala ez berariaz zehazturiko historien %25,3). Hortaz, adingabeen %75i gutxi gorabehera ez zaizkio hezur-probak egin adina zein den jakiteko.

Hezur-proben emaitza, adingabeen historietan bilduta dagoenez, batzuetan uneko zenbatespena da (adibidez: "15 urte"), baina beste batzuetan, adingabea dagoen adinen arteko heina ematen da (esate baterako: "14-15 urte"). Beste zenbait kasutan, berriz, adin posibleen tartea ematen da, eta erdiko puntua hartu da probak egin zaizkien adingabeen batez besteko adina kalkulatzeko.

[18] http://www.refdugr.com/documentos/articulos/4.pdf.11 eta 12. orr.

**5. taula. Hezur-probak egitea (EAE-ko datu orokorrak)**

| Hezur-probak | Kasu kop. | Portzentajea |
|---|---|---|
| Ez dira egin | 233 | %74,7 |
| Egin dira | 79 | %25,3 |
| **Kasu ezagun guztiak** | **312** | **%100** |
| Ez dakigu datua | 17 | |

Iturria: Geuk eginikoa.

Hala, 79 adingabe horiei eginiko hezur-probek erakusten dutenez, 12 eta 19 urte bitarteko adina dute, eta batez besteko adina **15,8 urtekoa** da.

Nahiz eta orokorrean gutxi gorabehera adingabeen %25i egin zaion proba, nabarmenak da alde horretatik lurralde historikoen artean dagoen aldea. 4. irudian ikus daitekeenez, Gipuzkoan eta Araban ia adingabe guztiei egiten zaizkie hezur-probak. Bizkaian kontrakoa gertatzen da, azterlan honetan azterturiko lagineko datuen arabera.

**4. irudia. Hezur-probak egitea, lurralde historikoka**




Iturria: Geuk eginikoa. Irudia egiteko, 312 adingabeen datuak izan genituen; ez dugu gainerako 17 adingabeen daturik.

9.2.3. Adierazitako adina eta hezur-proben bidez kalkulaturikoa bat ez etortzea

77 adingabek adierazitako adinaren eta hezur-probaren bidez kalkulaturikoaren datua dugu eta, beraz, alderaketa egin daiteke, 5. irudian agertzen denez.

**5. irudia. Adierazitako adinaren eta hezur-probekin kalkulaturiko adinaren arteko erkaketarako lagina**




Adierazitako adinaren eta hezur-proben bidez lorturikoaren arteko balizko bat ez-etortzeak aztertzerakoan, kontu handiz jokatu da, datuak ez baitira nahi izango genukeen bezain zehatzak. Dagoeneko azaldu dugunez, batzuetan adinen tarte bat eskaintzen du proben emaitzak; nahiago bada, errore-marjina duen datu bat eskaintzen ari da. Adin-tartea ematen denean, urtebeteko aldia izaten da.

Urte bateko tartea duen probaren emaitzako kasuetan, bat datozela ulertu da, baldin eta adierazitako adina adingabearen historiak ematen duen tartearen barruan badago. Hots, adingabe batek 14 urte dituela adierazi badu eta probak 14-15 urte dituela ematen badu, bat datozela ulertuko dugu. Beste kasu batzuetan, adierazitako adina ez dago tartearen barruan; esate baterako, 14 urtekoa izan daiteke adierazitako adina, eta hezur-proben emaitzak 16-17 urtekoa adina eman dezake. Hala denean, tartearen batez besteko puntua hartzea erabaki da eta adierazitako adinaren eta hezur-proban emandakoaren arteko aldea 2,5 urtekoa izatea.

Azkenik, adingabe askorentzat, uneko datua da kalkulaturiko hezur-adina. Baldin eta adingabe batek 14 urte dituela adierazten badu eta hezur-proben emaitzan 15 urteko zenbatespena azaltzen bada, urtebeteko aldea dagoela jakinaraziko genuke. Hala ere, ez dira bat ez-etortzetzat hartzen adinaren urte berearen barruko aldeak; beraz, adingabe batek 13 urte dituela jakinarazten badu eta sendagileak 13,5 urte dituela kalkulatzen badu, bat datozela ulertuko da, zeren eta 13 urte eta sei hilabeterekin adingabearen legezko adina 13 urtekoa baita oraindik.

Alde horretatik, ondokoa agerrarazi nahi dugu: ez dirudi oso egokia denik zenbait zenbatespen urte bateko errore-marjinarekin edo tartearekin ematea eta beste batzuk unekoak edo puntualak izatea, eta ez dakigu zein errore-marjina onartzen duen emandako zenbatespenean proba egin duen profesionalak. Zentzuz jokatuta, errore-marjina zenbatespen guztietan izan beharko litzateke kontuan. Bien bitartean, ondoko taulan ematen diren moduko datuak zuhurtzi handiz irakurri behar dira, aurreko guztia kontuan hartuta.

Beraz, adierazitako adina eta hezur-proben bidez zenbatetsitakoa ez datoz bat eta alde nabarmena dago, zeren eta kasuen %30 ez baitatoz bat adingabeak emandako datua eta profesionalaren zenbatespena; zehazkiago, %19,5, emandako emaitzaren arabera, adierazitakoa baino nagusiagoa da. %10,4an, berriz, adierazitakoa baino txikiagoa dela adierazten dute hezur-probek. Gainerako %70,1ean, bat datoz adierazitako adina eta hezur-probak.

**6. taula. Aldea: hezur-probako adina ken adierazitako adina**

| Adin medikoaren eta adierazitakoaren arteko aldea | | Kasu kopurua | Portzentajea |
|---|---|---|---|
| Hezur-proben arabera, adierazitakoa baino adin txikiagoa da | Bi urte eta erdi txikiagoa | 1 | %1,3 |
| | Bi urte txikiagoa | 1 | %1,3 |
| | Urte eta erdi txikiagoa | 3 | %3,9 |
| | Urtebete txikiagoa | 2 | %2,6 |
| | Sei hilabete txikiagoa | 1 | %1,3 |
| **Ez dago alderik** | **Bat datoz adierazitako adina eta proba** | **54** | **%70,1** |
| Hezur-proben arabera, adierazitakoa baino handiagoa da | Sei hilabete nagusiagoa | 1 | %1,3 |
| | Urtebete nagusiagoa | 6 | %7,8 |
| | Urte eta erdi nagusiagoa | 1 | %1,3 |
| | Bi urte nagusiagoa | 6 | %7,8 |
| | Hiru urte nagusiagoa | 1 | %1,3 |
| **Guztira** | | **77** | **%100** |

Iturria: Geuk eginikoa.

### *9.2.3.1. Adierazitako adina eta hezur-probetakoa bat ez etortzeen bilakaera*

6. irudian, adierazitako adinaren eta hezur-proben bidez zenbatetsitako adinaren arteko balizko ez etortzeei buruzko datua agertzen da, baina oraingoan urteka banakatua. Ikus daitekeenez, oso antzekoa da joera bi urteetan; igoera txikirako joera duten aldaketa txikiak besterik ez daudela ematen du 2007an: hezur-proben arabera, adierazitakoa baino nagusiagoa izan da pertsona.

**6. irudia. Hezur-probek kalkulaturiko adina: emaitzak urteen arabera**




Iturria: Geuk eginikoa.

### *9.2.3.2. Adierazitako adinaren eta hezur-probetako adinaren arteko bat ez etortzea, lurralde historikoen arabera*

Hiru lurralde historikoak orokorrean hartuta, adierazitako adinaren eta hezur-probetako adinaren artean bat etortzea da joera nabarmena. Alabaina, emaitza horiek lurralde historikoen arabera aztertzerakoan ikus dezakegunez, joera hori duen lurralde historiko jakin bat dago, eta kasu gehien ematen dituena denez gero, azterketa orokorrean agerrarazi behar izan da. Gipuzkoako lurraldea da. Bizkaian, aldiz, ia ez da proba egiten eta, beraz, ezer gutxi adieraz diezagukete datuok; Araban, bat ez etortzeak bat etortzeei nagusitzen zaizkie.

**7. irudia. Hezur-probek kalkulaturiko adina: emaitzak lurralde historikoen arabera**




Iturria: Geuk eginikoa.

Nolanahi ere, eta arestian esana dugunez, batzuetan zenbatespenak marjina zabal batekin (urte batekoa gehienez) eta beste batzuetan uneko datuekin ematen direnez gero, zuhurtzi handiz irakurri behar ditugu datuok. Unean uneko datuetan aintzatetsitako marjina zein den jakingo bagenu, hemen agertzen den argazkia desberdina izan liteke.

**7. taula. Hezur-probek kalkulaturiko adinaren eta adierazitako adinaren arteko aldea: emaitzak lurralde historikoen arabera**

| Adin medikoaren eta adierazitakoaren arteko aldea | | Kasu kopurua Gipuzkoan | Kasu kopurua Bizkaian | Kasu kopurua Araban |
|---|---|---|---|---|
| Hezur-proben arabera, adierazitakoa baino txikiagoa da | Bi urte eta erdi txikiagoa | 0 | 0 | 1 |
| | Bi urte txikiagoa | 0 | 1 | 0 |
| | Urte eta erdi txikiagoa | 2 | 0 | 1 |
| | Urtebete txikiagoa | 2 | 0 | 0 |
| | Sei hilabete txikiagoa | 1 | 0 | 0 |
| **Ez dago alderik** | **Bat datoz adierazitako adina eta probakoa** | **44** | **4** | **6** |
| Proben arabera, adierazitakoa baino nagusiagoa da | Sei hilabete nagusiagoa | 0 | 0 | 1 |
| | Urtebete nagusiagoa | 1 | 1 | 4 |
| | Urte eta erdi nagusiagoa | 0 | 0 | 1 |
| | Bi urte nagusiagoa | 0 | 0 | 6 |
| | Hiru urte nagusiagoa | 0 | 0 | 1 |
| **Guztira** | | **50** | **6** | **21** |

Iturria: Geuk eginikoa.

### 9.2.4. Auzitegi medikuaren probak: aldaketarik al dago urte batetik bestera?

Atal honen xedea hezur-probak egiteko maiztasuna jakitea izan zen, hezur-probetako adinaren eta adierazitako adinaren arteko balizko bat etortzea edo ez etortzea edozein delarik ere. Zehazkiago, azterturiko urteen artean hezur-proben kopurua aldatzen den edo, bestela, egonkor eusten dion jakin gura izan zen.

Chi-karratua izeneko probak erakutsi zuenez, ildo horretan ez dago alde nabarmenik azterturiko bi urteen artean; kopurua ez da nabarmen igo edo jaitsi. Proba egin ahal izateko, beharrezko datuak genekizkien 312 subjektuen datuak erabili ziren, hots, beren beregi jasotzen zen haien historian auzitegiko medikuaren probak egin zitzaizkien ala ez.

**8. taula. Ez dago alderik auzitegiko medikuaren probak egitean, urte batetik bestera, laginaren guztizko kopuruan**

| | | | Hezur-probak egitea | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | Ez | Bai | |
| Urtea | 2006 | Kasu kopurua | 128 | 37 | 165 |
| | | 2006ko kasuen % | %77,6 | %22,4 | %100 |
| | 2007 | Kasu kopurua | 105 | 42 | 147 |
| | | 2007ko kasuen % | %71,4 | %28,6 | %100 |
| **Orotara** | | **Kasu kopurua** | **233** | **79** | **312** |
| | | **%** | **%74,7** | **%25,3** | **%100** |
| Ez dakigu datua: 17 kasu | | | | | |

Iturria: Geuk eginikoa.

Beharrezkotzat jo zen denboran izandako balizko aldea, lurralde historikoen arabera. Hortaz, proba bera egin zen lurralde historiko bakoitzeko adingabeekin, banaka eta aparte. Eginiko chi-karratuko probak berriz ere erakutsi zuen ez dagoela alde nabarmenik azterturiko bi urteen artean auzitegiko medikuaren probak egitean Gipuzkoan.

**9. taula. Hezur-probak egitea urtean, Gipuzkoan**

| Bakarrik Gipuzkoako Lurralde Historikoan | | | Hezur-probak egitea | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | Ez | Bai | |
| Urtea | 2006 | Kasu kopurua | 1 | 25 | 26 |
| | | 2006ko kasuen % | %3,8 | %96,2 | %100 |
| | 2007 | Kasu kopurua | 0 | 26 | 26 |
| | | 2007ko kasuen % | %0 | %100 | %100 |
| **Orotara** | | **Kasu kopurua** | **1** | **51** | **52** |
| | | **%** | **%1,9** | **%98,1** | **%100** |

Iturria: Geuk eginikoa.

Bizkaian, kategorietako batean kasu kopurua txikia zegoela-eta, ezinezkoa izan da chi proba egitea azterturiko bi urteen arteko alderik dagoen egiaztatzeko, zeren ez baita betetzen proba gauzatzeko eta estatistikaren aldetik alde nabarmenik dagoen edo ez dagoen ezartzeko kasuetako bat. Datu gehiago beharko lirateke erkatu ahal izateko. Nolanahi ere, urte baterako eta besterako datuak begira daitezke 11. taulan.

**10. taula. Hezur-probak egitea urtean, Bizkaian**

| Bakarrik Bizkaiko Lurralde Historikoan | | | Hezur-probak egitea | | Orotara |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | Ez | Bai | |
Eskaturiko tutoretzen kopuruari dagokionez, ikerlariek kontsultaturiko dokumentazioak ez du datu hori eman adingabeen kopuru handian, 33. taulan ikus daitekeenez. Datua jasota zegoen espedientea zuten adingabeen artean, eskaera guztien %93,6an egin zela ikusi da. Hots, 204 tutoretza eskaera izan dira, eta guztira 158 pertsonak jaso dute tutoretza.

**32. taula. Tutoretza eskaera**

| Eginiko eskaera | Kasu kopurua | Portzentajea |
|---|---|---|
| Ez | 14 | %6,4 |
| Bai | 204 | %93,6 |
| **Orotara** | **218** | **%100** |
| Ez dakigu datua | 111 | |

| | Kasuak | Portzentajea |
|---|---|---|
| Eman da | 158 | %77,5 |
| Ez da eman | 22 | %10,8 |
| Ezezaguna | 24 | %11,8 |

Iturria: Geuk eginikoa.

Lurralde historikoen arabera ikus daitekeenez, Araban eta Gipuzkoan eskaturiko tutoretzen %100 eman zen. Bizkaian, berriz, tutoretza ukatu zitzaion adingabeen %8,5i, ez dakizkigun arrazoiengatik.

**29. irudia. Tutoretza eskaera, lurralde historikoaren arabera**




Iturria: Geuk eginikoa. 33. taulan adierazitako 218 adingabeen datuak.

### 9.6.2. Erroldatzea

Erroldatzeari dagokionez esan beharra dago adingabe horien eskubidea eta betebeharra dela Udal Erroldan inskribatzea. Erregistro horretan, herri edo hiri bateko auzokideak agertzen dira. Nazionalitate espainiarreko pertsonak zein nazionalitate hori ez dutenak erroldatu daitezke; ez dago zertan egoitza baimenik izan. Erroldan izena eman beharra dago, besteak beste osasun laguntzako eta gizarte zerbitzuetako sistema publikoan sartzea ahalbidetzen duelako. Gainera, atzerritarrek Espainiako estatuan zenbat denbora daramaten frogatzeko ere balio du, beste dokumentu batzuekin batera; hori oso garrantzitsua da egoitza eta lan baimena izapidetzeko eta lortzeko.

Erroldan izena emateko, indarreko pasaportea aurkeztu (edo nortasun nazionaleko agiria EBko jatorriko pertsonak direnean) eta bizitzeko helbide bat dutela egiaztatu behar dute atzerritarrek, baina kasuan

kasuko udalaren araberakoa izango da egiaztatu beharreko baldintzak egiaztatzea eta eskatzea. Bi urterik behin berritu behar da errolda; osterantzean, udalak bere arioz izapidetu dezake baja. Soilik baimen iraunkorra dagoenean (5 urtekoa) edota Europar Batasuneko kidea denean ez da beharrezkoa errolda berritzea.

Adingabeen historietatik ateratako gure azterlaneko datuen arabera, adingabeen %37ri baino ez zitzaion eskatu erroldatzea, eta adingabeen talde baten historietan ez zen horren gaineko azalpenik jaso.

**33. taula. Errolda eskaera**

| Errolda eskatu al da? | Kasu kop. | Portzentajea |
|---|---|---|
| Ez | 179 | %63 |
| Bai, eta kasu guztietan eman da | 105 | %37 |
| **Guztira** | **284** | **%100** |
| Ez dakigu datua | 45 | |

Iturria: Geuk eginikoa.

Lurralde historikoen arabera ikus daitekeenez, erroldaen %100 egin zen Araban; Gipuzkoak adingabeen %50 erroldatu zuen, eta azkenik Bizkaia dago, non adingabeen %32,8 baino ez zen erroldatu.

**30. irudia. Errolda eskaera, lurralde historikoen arabera**




Iturria: Geuk eginikoa. 34. taulan adierazitako 284 adingabeen datuak.

### 9.6.3. Pasaportea

Adingabeentzako pasaportea eskatzeari dagokionez, 58 kasutan ez da halakorik aipatzen adingabearen dokumentazioan. Pasaportea eskatzeari buruzko datuak bildu ziren historiei esker (edo pasaportea eskatu ez izana), kasuen %53an pasaportea eskatu ez zela ondorioztatu ahal izan zen. Eta, aldi berean, eskaturiko 91 pasaporteetatik 82 lortu ziren. Gainerakoetan, berriz, ez zegoen daturik jasota adingabearen historian.

**34. taula. Pasaporte eskaera**

<table>
<tr><th>Pasaporte eskaera</th><th>Kasu kop.</th><th>Portzentajea</th><th></th><th>Kasuak</th><th>Portzentajea</th></tr>
<tr><td>Ez da egin</td><td>144</td><td>%53,1</td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td rowspan="3">Egin da</td><td rowspan="3">91</td><td rowspan="3">%33,6</td><td>Eman da</td><td>82</td><td>%73,9</td></tr>
<tr><td>Ez da eman</td><td>---</td><td>---</td></tr>
<tr><td>Ezezaguna</td><td>29</td><td>%26,1</td></tr>
<tr><td>Ez da beharrezkoa, badauka</td><td>36</td><td>%13,3</td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>Orotara</td><td>271</td><td>%100</td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>Ez dakigu datua</td><td>58</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
</table>

Iturria: Geuk eginikoa.

Alde argiak ikusten ditugu lurralde historikoen arabera: Gipuzkoan ikus dezakegunez, kasurik gehienetan pasaportea eskatu zen. Bizkaian, berriz, adingabeari pasaportea eskatu ez izateko joera nagusitu zen. Bestalde, Araban, kasuen %76,5ean ez zen beharrezkoa izan pasaportea eskatzea, eta gehienetan ez zen beharrezkoa izan gestio hori, adingabeak bazeukalako dokumentua.

**31. irudia. Pasaportea eskatzea, lurralde historikoen arabera**




Iturria: Geuk eginikoa. 35. taulan adierazitako 271 adingabeen datuak.

### 9.6.4. Egoitza baimena

Egoitza baimenari dagokionez, bi egoitza baimen mota daudela esan beharra dago:

- Aldi baterakoa. Eskuratu daitekeen lehen baimena da eta berriztuz joan beharra dago baimen iraunkorra izateko nahikoa antzinatasunaz jabetu arte. Egoitza baimenak ez du beti lan egiteko ahalmenik ematen, baimen batzuk egoitzakoak baizik ez baitira, eta beste batzuk egoitza eta lanerakoak.
- Iraunkorra. Baimen iraunkorra eskuratu daiteke 5 urtez jarraian aldi baterako edozein egoitza baimena izan bada. Mugarik gabeko baliozkotasuna du, baina nahitaezkoa da 5 urtean behin berritzea.

Atal honetan ez dira bereizi aldi baterako baimena eta baimen iraunkorra. Baimen iraunkorra eskuratzeko herrialdean bost urtez bizi behar denez gero, zaila da adingabeak baimena iraunkorra lortu ahal izatea.

Datuek erakusten dutenez, kasuen %58,9an ez zen egoitza baimena eskatu, baina adingabeen kopuru handi batek, berriz ere, ez du datu hori ematen. Soilik eskaturiko baimenei erreparatzen badiegu, 36. taulak erakusten du ia guztiak eman zirela, baina ez dago –beste behin ere– adingabeen talde txiki baterako daturik.

**35. taula. Egoitza baimena eskatzea**

| Egoitza baimena | Kasu kop. | Portzentajea | | Kasuak | Portzentajea |
|---|---|---|---|---|---|
| Ez da eskatu | 156 | %58,9 | | | |
| Eskatu da | 109 | %41,1 | Eman da | 94 | %86,2 |
| | | | Ez da eman | --- | --- |
| | | | Ezezaguna | 15 | %13,8 |
| **Guztira** | **265** | **%100** | | | |
| Ez dakigu datua | 64 | | | | |

Iturria: Geuk eginikoa.

Zenbait desberdintasun ikusten dugu lurralde historikoen arabera: Gipuzkoan nahiz Araban egoitza baimena eskatu zen kasu guzti-guztietan; Bizkaian, aldiz, adingabeen %65,5ek ez zuen izapide hori beteta izan.

**32. irudia. Egoitza eskaera, lurralde historikoen arabera**




Iturria: Geuk eginikoa. 36. taulan agertzen diren 265 adingabeen datuak.

### 9.6.5. Lan egiteko baimena

Lan egiteko baimena deritzo atzerritarrek Espainiako Estatuan lan egin ahal izateko behar duten administrazio-agiriari. Espainiako atzerritarren eskubideei eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan dago ezarrita atzerritarrek Espainiako estatuan lan egiteko behar duten baimenaren emakida arautzen duen araudia; hainbat alditan aldatu da, arestian adierazi dugunez.

Irabazizko, laneko edo lanbideko jarduera bat Espainian egin nahi duten 16 urtetik gorako atzerritarrek, beren kontura edo inoren kontura, lan egiteko administrazio-baimena eskuratu behar dute aldez aurretik.

Araubide hori, hots, lan egiteko administrazio-baimena behar izatea, ez zaie aplikatuko Europar Batasuneko estatu kideetako herritar guztiei eta hirugarren estatuetako herritar guztiei, zeren eta ahaidetasuna dela-eta araubide komunitarioa aplikatu behar baitzaie.

Gure lagineko historietan salbuespenekoa izan zen lan egiteko baimen-eskabideak aurkitzea: halako bost baimen baino ez ziren eskatu, eta bost kasuetan eman ziren. Hiru eskabide Bizkaian egin ziren, bat Gipuzkoan eta bestea Araban.

### 9.6.6. Administrazio gestioak: berandutzeen taula

Sekzio honetan, adingabea babes sisteman sartzen denetik irteten denera arte igarotako denbora emango da, eta tarte horretan, administrazio gestio bakoitza egiteko behar izan zen denbora. 34 eta 38. irudietan ikus daitekeenez, lehenik eta behin sisteman izandako egonaldiaren iraupenari buruzko datuak azalduko dira, zeren horrek beharrezko informazioa emango baitu hurrengo irudietako datuak testuinguruan kokatzeko.

34. irudian ageri denez, 223 historietakoak dira eskainitako datuak; izan ere, 100 kasutan ez dugu egonaldiaren iraupenaren berri. Lan honetako beste atal batzuetan gertatzen den bezala, kasu kopuru handian informaziorik ez izateak mugatu egiten du erakutsitako emaitzak orokortzea eta, beraz, datuok zuhurtziaz hartu behar dira. Arazo bera izango dugu hurrengo irudietan. Esku artean ditugun datuak ikusita, egonaldirik gehienak nahikoa luzeak direla esan dezakegu; baldin eta sei hilabetetik gorako egonaldiak eta urtebetetik gorakoak batzen baditugu, gutxi gorabehera %55 lortuko dugu. Hala eta guztiz ere, astebetetik beherako egonaldien portzentaje handia ere badago, %21ekoa; oso iraupen mugatua da, eta horrek ondorioak ditu adingabeekin lan egitean.

Antzeko joera ikusten dugu lurralde historikoen arabera.

34. irudiak babes-eskaerari dagokionez erakusten duenez, adingabea babes sisteman sartutakoan, berehala egiten da eskaera, lehen astean; halaxe gertatzen da hiru lurralde historikoetan. Hainbat hilabetez luza daiteke emakida, eta lau hilabetekoa da batez bestekoa. Errolda-eskaerak, berriz, hainbat hilabete behar ditu, 35. irudiak erakusten duenez, eta 6 hilabeteko batez besteko berandutzea dago. Errolda eskatutakoan, berehala ematen da, egun berean. Oso antzekoa da egoera pasaportearen eskaeren aldetik; izan ere, antzeko denborak izaten dira (36. irudia) eskaera egin arte, baina berandutze handiagoa izaten da errolda eman arte, edozeinek gestio hori egiteko ohikoa izaten den bezala. Azkenik, egoitza baimenak luzeago jotzen du aurreko izapideek baino; batez beste 9 hilabete behar dira eskaera egin arte; herrialdean 3 hilabete egin eta gero hasten da eskatzen, datuek erakusten dutenez.

Beste behin gogoratu behar dugu esku artean ez ditugun edo historian bildu ez diren datuekin dagoen arazoa. 35, 36 eta 37. irudietan, oso historia gutxiri buruzko datuak daude, halako moldez non arestian azaldutakoa ezin har baitaiteke sistemak gai horietan duen funtzionamenduaren azalpentzat, eta erregistroa edota datuak eskuratzea hobetu beharra uzten da agirian horrelako azterlan motetan.

**33. irudia. EAE-ko babes sistemako egonaldiaren iraupenari buruzko xehetasunak**




| Babes sistemako egonaldiaren iraupena (2006 eta 2007ko datu orokorrak) | Kasuak | % |
|---|---|---|
| Astebete gehienez | 47 | %21,1 |
| Astebete baino gehiago – bi aste | 7 | %3,1 |
| Bi aste baino gehiago - hilabete | 7 | %3,1 |
| Hilabete baino gehiago – hiru hilabete | 17 | %7,6 |
| Hiru hilabete baino gehiago – sei hilabete | 21 | %9,4 |
| Sei hilabete baino gehiago - urtebete | 45 | %20,2 |
| Urtebete baino gehiago | 79 | %35,4 |
| **Orotara** | **223** | **%100** |
| Ez dakigu datua | 100 | |




Iturria: Geuk eginikoa. Egonaldiaren berri dagoen 223 adingabeen datuak.

**34. irudia. Sisteman sartzen denetik babesa eskatu arteko denbora**




| Sisteman sartzen denetik babes eskaera egin arteko denbora | Kasuak | % |
|---|---|---|
| Astebete gehienez | 187 | %94,9 |
| Astebete baino gehiago – bi aste | 2 | %1 |
| Bi aste baino gehiago - hilabete | 2 | %1 |
| Hilabete baino gehiago – hiru hilabete | 2 | %1 |
| Hiru hilabete baino gehiago – sei hilabete | 3 | %1,5 |
| Sei hilabete baino gehiago - urtebete | 1 | %0,5 |
| Urtebete baino gehiago | 0 | %0 |
| **Orotara** | **197** | **%100** |
| Ez dakigu datua | 126 | |




Iturria: Geuk eginikoa. Igarotako denboraren berri izan dugun 197 adingabeen datuak.

**35. irudia. Sisteman sartzen denetik errolda eskaera egin arteko denbora**




| Sisteman sartzen denetik errolda eskaera egin arteko denbora | Kasuak | % |
|---|---|---|
| Astebete gehienez | 3 | %3,6 |
| Astebete baino gehiago – bi aste | 4 | %4,8 |
| Bi aste baino gehiago - hilabete | 3 | %3,6 |
| Hilabete baino gehiago – hiru hilabete | 16 | %19,3 |
| Hiru hilabete baino gehiago – sei hilabete | 20 | %24,1 |
| Sei hilabete baino gehiago - urtebete | 29 | %34,9 |
| Urtebete baino gehiago | 8 | %9,6 |
| **Orotara** | **83** | **%100** |
| Ez dakigu datua | 240 | |

**Babes sisteman sartzen denetik erroldatzea eskatu arteko denbora**




Iturria: Geuk eginikoa. Igarotako denboraren berri izan dugun 83 adingabeen datuak.

**36. irudia. Sisteman sartzen denetik pasaportea eskatu arteko denbora**




| Sisteman sartzen denetik pasaportea eskatu arteko denbora | Casos | % |
|---|---|---|
| Astebete gehienez | 0 | %0 |
| Astebete baino gehiago – bi aste | 0 | %0 |
| Bi aste baino gehiago - hilabete | 0 | %0 |
| Hilabete baino gehiago – hiru hilabete | 2 | %10,5 |
| Hiru hilabete baino gehiago – sei hilabete | 8 | %42,1 |
| Sei hilabete baino gehiago - urtebete | 9 | %47,4 |
| Urtebete baino gehiago | 0 | %0 |
| **Orotara** | **19** | **%100** |
| Ez dakigu datua | 304 | |




Iturria: Geuk eginikoa. Igarotako denboraren berri dugun 19 adingabeen datuak.

**37. irudia. Sisteman sartzen denetik egoitza baimena eskatu artera arteko denbora**




| Sisteman sartzen denetik egoitza baimena eskatzen denera arteko denbora | Kasuak | % |
|---|---|---|
| Astebete gehienez | 0 | %0 |
| Astebete baino gehiago – bi aste | 0 | %0 |
| Bi aste baino gehiago - hilabete | 1 | %1,1 |
| Hilabete baino gehiago – hiru hilabete | 2 | %2,3 |
| Hiru hilabete baino gehiago – sei hilabete | 10 | %11,4 |
| Sei hilabete baino gehiago - urtebete | 56 | %63,6 |
| Urtebete baino gehiago | 19 | %21,6 |
| **Orotara** | **88** | **%100** |
| Ez dakigu datua | 235 | |

**Babes sisteman sartzen denetik egoitza baimena eskatu arteko denbora**




Iturria: Geuk eginikoa. Igarotako denboraren berri dugun 88 adingabeen datuak.

## 9.7. Egoitza testuingurua

### 9.7.1. Famili txostena izatea

Egoitza testuinguruaren barruan ikusten dugunez, azterturiko kasuen %97,6an famili txostena egin da, baina kontuan izan behar da, beste behin, ez dakigula MENA taldeko 161 kideen gaineko datua. Dinamika bera gertatzen da lurralde historikoen arabera.

**36. taula. Famili txostena**

| Famili txostena izatea | Kasu kopurua | Portzentajea |
|---|---|---|
| Ez | 4 | %2,4 |
| Bai | 164 | %97,6 |
| **Guztira** | **168** | **%100** |
| Ez dakigu datua | 161 | |

Iturria: Geuk eginikoa.

**38. irudia. Famili txostena, lurralde historikoen arabera**




Iturria: Geuk eginikoa. 37. taulan agertzen diren 168 adingabeen datuak.

### 9.7.2. Harremanak jatorrizko familiarekin

Aurreko atalean bezala, adingabeen kopuru handi batean ez dago jatorrizko familiarekiko harremanei buruzko daturik ikerlariek berrikusitako dokumentazioan. Datuak zeudeneko taldeari dagokionez, adingabeen %98,8k familiarekin harremanen bat izan zuen babes sisteman igarotako egonaldian.

**37. taula. Harremanak jatorrizko familiarekin**

| Harremanak jatorrizko familiarekin | Kasu kopurua | Portzentajea |
|---|---|---|
| Ez | 2 | %1,2 |
| Bai | 167 | %98,8 |
| **Guztira** | **169** | **%100** |
| Ez dakigu datua | 160 | |

Iturria: Geuk eginikoa.

**39. irudia. Harremanak jatorrizko familiarekin, lurralde historikoen arabera**




Iturria: Geuk eginikoa. 37. taulan agertzen diren 169 adingabeen datuak.

### 9.7.3. Harremanak familiarekin: berandutzea

Atal honetan, adingabea familiarekin harremanetan jartzeko behar izan zen denbora ezarri nahi zen, babes sisteman sartzen denetik hain zuzen. Alabaina, zazpi adingabeen datu hori baino ezin da jakin eta, beraz, batez besteko berandutzea ezin izan daiteke gainerako kasuen adierazgarria. Orientazio gisa esan beharra dago zazpi adingabe horiek batez beste 3 hilabete behar izan zituztela harremanetan jartzeko, babes sisteman sartu ondoren.

## 9.8. Eskola testuingurua

Hezkuntza da, formala eta formala ez dena, etorkinak gizarteratzeko funtsezko zutabeetako bat, eta aukeren benetako berdintasuna bideratzeko norainoko handiagoko baliabideetako bat da. Etorkin asko biltzen den hirietako edo berariazko eremuetan edo zenbait sare edo zentrotan hezkuntzaren gestio txarra izateak, epe luzera, ertainera eta epe luzera, arazo bat dakar, gure gizarteetako kohesio sozialaren eta

benetako gizarteratzearen kontra. Hezkuntzaren arloak duen garrantzia ikusita, azterturiko historiek horren inguruan ematen duten informazioa aztertuko dira ondoko sekzioan.

### 9.8.1. Jatorrizko eskolatzea

Berrikusitako dokumentazioan, 38 adingaberen jatorrizko eskolatzeari buruzko datuak baizik ez ziren bildu, guztizko laginaren oso zati txikia. Adingabe horietatik, ia guztiak eskolatuta daude jatorrizko herrialdean, 39. taulak erakusten duenez.

**38. taula. Eskolatzea jatorrizko herrialdean**

| Eskolatua jatorrizko herrialdean | Kasu kopurua | Portzentajea |
|---|---|---|
| Ez | 2 | %5,3 |
| Bai | 36 | %94,7 |
| **Guztira** | **38** | **%100** |
| Ez dakigu datua | 291 | |

Iturria: Geuk eginikoa.

Jatorrizko eskolatze-urteen kopuruari dagokionez, askotariko datuak daude. Gogoratu behar dugu hainbat herrialdetako adingabeak direla, hezkuntza sistema desberdinekoak, eta gainera adin desberdinekoak dira. 40. irudian agertzen dira jasotako eskolatze-urteen kopuruaren araberako maiztasunak; irudi horretan, ikus daitekeenez, ohikoenak aurretiazko 8 eta 9 eskolatze-urteak dira jatorrizko herrialdean.

**40. irudia. Jatorrizko herrialdeko eskolatze-urteen kopurua**




Iturria: Geuk eginikoa. 32 adingabeen datuak: horien jatorrizko herrialdeko eskolatze-urteak dakizkigu.

### 9.8.2. Eskolatzea gaur egun

Esku artean ditugun datuen arabera, adingabe ia guztiak daude eskolatuta, baina berriz ere ez dugu eskolatze horren gaineko daturik adingabe kopuru handi batekin (laginaren erdia baino gehiago). Nolanahi ere, eskolatutakoen taldeari buruzko xehetasunak emango dira, babesean izan diren denboran parte hartu duten ikastetxeen kopuruaren inguruan, baita egiten ari diren ikasketen gainekoak ere. Datu horiek orokorrean nahiz lurralde historikoen arabera eta banaka aurkeztuko dira.

**39. taula. Eskolatzea gaur egun**

| Eskolatzea gaur egun | Kasu kopurua | Portzentajea |
|---|---|---|
| Ez | 1 | %0,7 |
| Bai | 145 | %99,3 |
| **Guztira** | **146** | **%100** |
| Ez dakigu datua | 183 | |

Iturria: Geuk eginikoa.

**41. irudia. Eskolatzea gaur egun, lurralde historikoaren arabera**




Iturria: Geuk eginikoa. 40. taulan emandako 146 adingabeen datuak.

Esku artean ditugun datuek erakusten dutenez (ikusi 41. taula eta 42. irudia), adingabe gehienak ikastetxe batera joan ziren EAEko babes sisteman izan zen denboran.

### 40. taula. EAE-ko ikastetxeen kopurua

| EAEn izandako ikastetxeen kopurua | Kasu kopurua | Portzentajea |
|---|---|---|
| Ikastetxe bat | 128 | %88,9 |
| Bi ikastetxe | 16 | %11,1 |
| **Guztira** | **144** | %**100** |
| Ez dakigu datua | 185 | |

Iturria: Geuk eginikoa.

### 42. irudia. EAE-n ikasi duen ikastetxe kopurua, lurralde historikoen arabera




Iturria: Geuk eginikoa. 41. taulan agertzen diren 144 adingabeen datuak.

### 41. taula. Gaur egun egiten ari diren ikasketak

| Gaur egun egiten ari diren ikasketak | Kasu kopurua | Portzentajea |
|---|---|---|
| LHI | 65 | %46,1 |
| Lan Heziketa | 20 | %14,2 |
| LHI eta Alfabetizazioa | 13 | %9,2 |
| LHI eta Alfabetizazioa | 7 | %5 |
| DBH | 6 | %4,3 |
| DBH eta LHI | 6 | %4,3 |
| BHI | 4 | %2,8 |
| Lan heziketa eta Alfabetizazioa | 4 | %2,8 |

| Gaur egun egiten ari diren ikasketak | Kasu kopurua | Portzentajea |
|---|---|---|
| LHI eta Lan heziketa | 3 | %2,1 |
| LHI eta HHI | 3 | %2,1 |
| DBH eta Alfabetizazioa | 3 | %2,1 |
| BHI eta Alfabetizazioa | 2 | %1,4 |
| BHI eta Lan heziketa | 2 | %1,4 |
| Konpentsazioko BHI | 1 | %0,7 |
| Alfabetizazioa | 1 | %0,7 |
| DBH eta BHI | 1 | %0,7 |
| **Guztira** | **141** | **%100** |
| Ez dakigu datua | 188 | |

Iturria: Geuk eginikoa.

Eginiko ikasketei dagokienez, esku artean izan ditugun datuen bidez jakin ahal izan dugunez, adingabeen erdiak ia Lanbide Hastapeneko Ikastetxe batean (LHI) ikasten du, eta beste %17k gutxi gorabehera LHI eta heziketako beste programa bat konbinatzen ditu. Beraz, gure laginean LHI ikasketa modalitate nagusia dela esan daiteke.

## 9.9. Jarraipena

### 9.9.1. Jarraipen-txostenak egitea

Beste behin ere aurkitu dugu adingabeen kopuru handi bati buruzko informaziorik ez izatea, oraingoan horietatik 196rentzat ez zegoen jarraipen-txostenak egiteari buruzko azalpenik. Dokumentazioan datu hori bazegoen 133 adingabeentzat, emaitza positiboa izan zen, zeren kasuen %97,7ri egin baitzitzaion jarraipen-txostena. Azterlanaren emaitzak azaltzen hasi baino lehen ohartarazi dugunez, arreta handiz hartu behar dira horrelako emaitzak. Itxuraz oso positiboak dira, baina historia batzuek informazioa emateko eta beste batzuek ez emateko arrazoien berri ez dugunez, ezin orokortu daiteke datu hori laginaren gainerako ataletara.

**42. taula. Jarraipen-txostenak**

| Jarraipen-txostenak | Kasu kopurua | Portzentajea |
|---|---|---|
| Ez | 3 | %2,3 |
| Bai | 130 | %97,7 |
| Guztira | 133 | %100 |
| Ez dakigu datua | 196 | |

Iturria: Geuk eginikoa.

**43. irudia. Jarraipen-txostenak, lurralde historikoen arabera**




Iturria: Geuk eginikoa. 43 taulan adierazitako 133 adingabeen datuak.

9.9.2. Jarraipen-bilerak

Puntu honetan aurrekoaren oso antzeko zerbait gertatzen da. 131 adingabeen datuak ditugu eta horietatik, kasuen %98,5ekin izan dira jarraipen-bilerak. Dinamika bera gertatzen da lurralde historikoen arabera.

**43. taula. Jarraipen-bilerak**

| Jarraipen-bilerak | Kasu kop. | Portzentajea |
|---|---|---|
| Ez | 2 | %1,5 |
| Bai | 129 | %98,5 |
| **Guztira** | **131** | **%100** |
| Ez dakigu datua | 198 | |

Iturria: Geuk eginikoa.

**44. irudia. Jarraipen-bilerak, lurralde historikoen arabera**




Iturria: Geuk eginikoa. 44 taulan adierazitako 131 adingabeen datuak.

## 9.10. Osasuna

### 9.10.1. Osasun-txartela eskatzea eta ematea

EAEko udalerri batean erroldaturiko pertsonek banako osasun-txartela eskatzeko eskubidea dute baliabiderik ez dutela egiaztatzen badute.

Gure laginean, beste behin aurkitu dugu osasun-txartela eskatzeari eta emateari buruzko informaziorik izan ez den kasu kopuru handia. Datuak eskuragarri daudenean, ia adingabe guztiei eskatu eta eman zitzaien osasun-txartela, maila orokorrean nahiz datua lurralde historikoen arabera aztertzean (45. irudia).

**44. taula. Osasun-txartela eskatzea**

| Osasun-txartela | Kasu kop. | Portzentajea | | Kasuak | Portzentajea |
|---|---|---|---|---|---|
| Ez da eskatu | 1 | %0,7 | | | |
| Eskatu da | 141 | %99,3 | Eman da | 132 | %93,6 |
| | | | Ez da eman | --- | --- |
| | | | Ezezaguna | 9 | %6,4 |
| **Orotara** | **142** | **%100** | | | |
| Ez dakigu datua | 187 | | | | |

Iturria: Geuk eginikoa.

**45. irudia. Osasun-txartela eskatzea, lurralde historikoen arabera**




Iturria: Geuk eginikoa. 45. taulan adierazitako 142 adingabeen datuak.

### 9.10.2. Osasun-txartela: berandutzeen taula

Babes sisteman sartzen direnetik osasun-txartela izapidetzea eskatzeko berandutzeari dagokionez, 46. taulan ikus daitekeenez, 49 adingabeen datuak baizik ezin izan dira eskuratu. Kasuen %44,9an izapide hori egiteko (Osasun-txartela eskatzea), 6 hilabete eta urtebete arteko aldia behar izan zen. Txartela eskatzen denetik ematen denera arte igarotako denborari dagokionez, ia ez dago horren gaineko datu eskuragarririk berrikusitako dokumentazioan.

**46. irudia. Babes sisteman sartzen denetik osasun txartelaren gestioak egiten arteko denbora**




| Sisteman sartzen denetik osasun txartela eskatu arteko denbora | Kasuak | % |
|---|---|---|
| Astebete gehienez | 2 | %4,1 |
| Astebete baino gehiago – bi aste | 1 | %2 |
| Bi aste baino gehiago - hilabete | 3 | %6,1 |
| Hilabete baino gehiago – hiru hilabete | 3 | %6,1 |
| Hiru hilabete baino gehiago – sei hilabete | 17 | %34,7 |
| Sei hilabete baino gehiago - urtebete | 22 | %44,9 |
| Urtebete baino gehiago | 1 | %2 |
| **Orotara** | **49** | **%100** |
| Ez dakigu datua | 280 | |

Iturria: Geuk eginikoa.

### 9.10.3. Azterketa medikoa

Adingabeak zentroren batean hartzean egiten zaien azterketa medikoa denaz bezainbatean, dakizkigun datuak ikusita, 139k izan du azterketa medikoa, hots, %98,6k. Dinamika bera gertatzen da lurralde historikoen arabera.

**45. taula. Azterketa medikoa**

| Azterketa medikoa | Kasu kop. | Portzentajea |
|---|---|---|
| Ez | 2 | %1,4 |
| Bai | 137 | %98,6 |
| **Guztira** | **139** | **%100** |
| Ez dakigu datua | 190 | |

Iturria: Geuk eginikoa.

**47. irudia. Azterketa medikoa, lurralde historikoen arabera**




Iturria: Geuk eginikoa. 46 taulan adierazitako 139 adingabeen datuak.

### 9.10.4. Diagnostikoak edo gomendioak

Esku artean ditugun datuen arabera azterketa medikoa egin zaien adingabeen gaineko diagnostikoen edota gomendio medikoen xehetasunak emango dira jarraian, 47. taulan. Horietatik gehienek osasunari buruzko diagnostiko ona dute eta, beraz, ez dute nabarmentzeko moduko zailtasun medikorik izan.

**46. taula. Diagnostikoa**

| Diagnostikoa edo gomendioak | Kasu kop. | Portzentajea |
|---|---|---|
| Ona | 123 | %89,8 |
| Buruko osasunera bideratua | 2 | %1,5 |
| Haurdunaldia | 1 | %0,7 |
| %83,5eko elbarritasuna, osasun egoera delikatua | 1 | %0,7 |
| Maila eosinofiliko altuak (tratamendua) | 1 | %0,7 |
| Poli-kontsumitzailea | 1 | %0,7 |
| Bihotzeko murmurioa | 1 | %0,7 |
| Jarreraren gaitza | 1 | %0,7 |
| "Tricolan" (Mantux) tratamendua | 3 | %2,2 |
| Tuberkulosia | 2 | %1,5 |
| Tumore ona | 1 | %0,7 |
| **Guztira** | **137** | **%100** |
| Ez dago azterketarik edo ez dago daturik | 192 | |

Iturria: Geuk eginikoa.

## 9.11. Tutoretzari uztea

Atal honetan, adingabeen tutoretzari uzteari buruzko zenbait datu emango dira. Lehenik eta behin, egonaldien iraupena emango da, eta ondoren, sistematik irteteko zioak eta eginiko gomendioak zehaztuko dira; azkenik, tutoretzari utzi ondoren adingabeen bizitzari buruzko zenbait xehetasun emango dira.

### 9.11.1. Guztizko egonaldia

MENA taldekoek babes sisteman ematen duten denborari dagokionez, esku artean ditugun datuen arabera (223 adingabe) jakin badakigu horietako kopuru handi batek, %35ek hain zuzen, urtebetetik gorako aldian jaso zuela babesa, eta beste talde handi bat sei hilabetez egon zen babespean (%20). Beste muturrean, oso egonaldi laburrak ditugu, eta %21ek egin ditu gehienez astebeteko egonaldiak babes sisteman. 48. taulan agertzen dira datuok.

**47. taula. Egonaldiaren iraupena babes sisteman**

| Babesaren pean emandako denbora | Kasuak | % |
|---|---|---|
| Astebete gehienez | 47 | %21,1 |
| Astebete baino gehiago – bi aste | 7 | %3,1 |
| Bi aste baino gehiago - hilabete | 7 | %3,1 |
| Hilabete baino gehiago – hiru hilabete | 17 | %7,6 |
| Hiru hilabete baino gehiago – sei hilabete | 21 | %9,4 |
| Sei hilabete baino gehiago - urtebete | 45 | %20,2 |
| Urtebete baino gehiago | 79 | %35,4 |
| **Guztira** | **223** | **%100** |
| Ez dakigu datua | 106 | |

Iturria: Geuk eginikoa.

28. taulan ikusi dugunez, adingabeek EAEko babes sisteman ematen duten batez besteko denbora 10 hilabetekoa da.

**48. irudia. Sisteman sartzen denetik irten arte igarotako denbora**




Geure buruari galde diezaiokegu egonaldiaren iraupenari buruzko datua egonkorra den, edo bestela, oso aldakorra den denboraren aldetik. Horrexegatik, azterturiko urte bakoitzeko egonaldien iraupena aurkeztuko da 49. irudian, eta urte bietako profila antzekoa da. 50. irudian, egonaldien iraupena ageri da lurralde historikoen arabera. Bizkaiak, esana dugun moduan, kasu gehien jaso duen lurraldea da, eta maiztasun handiena du, dela egonaldi laburren aldetik, dela egonaldi luzeen aldetik.

**49. irudia. Egonaldien iraupena azterlanetako urte bakoitzean**




Iturria: Geuk eginikoa. 48 taulan adierazitako 223 adingabeen datuak. Egonaldiaren iraupena zein den badakigu kasu horietan.

**50. irudia. Egonaldiaren iraupena lurralde historiko bakoitzean**




Iturria: Geuk eginikoa. 48. taulan adierazitako 223 adingabeen datuak; egonaldiari buruzko datuak ditugu.

### 9.11.2. Babes sistematik irteteko zioak

Babes sistematik irteteko zioei dagokienez, kasuen %49k adin nagusia izateko adina bete zuelako utzi zuen sistema. Kontrako zio bat ere badago sistematik irteteko (maiztasunean): adingabeak babes zentroak bere borondatez uztea, %36an hain zuzen.

**48. taula. Babes sistematik irtetea: zioak**

| Babes sistematik irteteko zioa | Kasu kopurua, guztira | Portzentajea | Kasu kop. Gipuzkoan | Kasu kop. Bizkaian | Kasu kop. Araban |
|---|---|---|---|---|---|
| Borondatezko abandonatzea | 91 | %36,4 | 19 | 69 | 3 |
| Espedienteak ixtea | 2 | %0,8 | * | 2 | * |
| Desagerpena | 3 | %1,2 | * | 3 | * |
| Adin nagusia | 124 | %49,6 | 26 | 85 | 14 |
| Adin nagusikoa fiskaltzaren dekretuz | 2 | %0,8 | 2 | * | * |
| Adin nagusikoa auzitegiko medikuaren proba dela eta | 1 | %0,4 | * | 1 | * |
| Ez da adingabea | 5 | %2 | * | 5 | * |
| Familia batzea | 9 | %3,6 | 3 | 2 | 2 |
| Zentrora itzultzea | 12 | %4,8 | 8 | 4 | * |
| Familiara itzultzea | 1 | %0,4 | * | 2 | * |
| **GUZTIRA** | **250** | **%100** | **66** | **239** | **24** |
| Ez dakigu datua | 79 | | 8 | 66 | 5 |

Iturria: Geuk eginikoa.

### 9.11.3. Emantzipazio edo desbideratze plana

Puntu honetan, 82 kasuri buruzko datuak besterik ez ditugu. Ia kasu guztietan, adingabeentzat ezarritako emantzipazio-plan bat egon zen, orokorra nahiz lurralde historikoen araberakoa.

**49. taula. Emantzipazio edo desbideratze plana izatea**

| Emantzipazio edo desbideratze plana | Kasu kopurua | Portzentajea |
|---|---|---|
| Ez | 1 | %1,2 |
| Bai | 81 | %98,8 |
| **Dakizkigun kasu guztiak** | **82** | **%100** |
| Ez dakigu datua | 247 | |

Iturria: Geuk eginikoa.

**51. irudia. Emantzipazio edo desbideratze plana izatea, lurralde historikoen arabera**




Iturria: Geuk eginikoa. 50 taulan adierazitako 82 adingabeen datuak.

## 9.11.4. Gomendioak

Adingabea babes sistematik irtetean eginiko gomendioak bilduko dira puntu honetan.

**50. taula. Gomendioak**

| Gomendioak | Maiztasuna | Portzentajea |
|---|---|---|
| Ez dakigu datua | 248 | %75,4 |
| Emantzipazio pisuan sartzea | 57 | %17,3 |
| Famili harrera | 1 | %0,3 |
| Argileku Etxerako baimena | 2 | %0,6 |
| Gizarteratze zerbitzura bideratzea | 2 | %0,6 |
| Gizarte laguntzak | 1 | %0,3 |
| Bazterketaren kontrako borroka zerbitzura bideratua | 2 | %0,6 |
| Senide batekin sartzea | 1 | %0,3 |
| Erreforma zentroan sartzea | 2 | %0,6 |
| Harrera ondokoa | 8 | %2,4 |
| Luzapena-emantzipazioa (6 hilabete) | 1 | %0,3 |
| Familia batzea | 3 | %0,9 |
| Sartzea: U.S. Itsasoaren Etxea | 1 | %0,3 |
| | **329** | **%100** |

Iturria: Geuk eginikoa.

9.11.5. Tutoretzari uztearen ondoko lana edo bizitzeko baliabideak

Informazio gutxi eman daiteke atal honetan; hiru adingabek diru-laguntzak dituztela besterik ezin izan dugu jakin. Laginerako gainerako ia kasu guztietan, ez da informazio hori aurkitu adingabeei buruzko dokumentazioan.

## 9.12. Kausa judizialak dituzten MENA taldekoak

Laginaren 329 adingabeetatik 10ek bakarrik dituzte kausa judizialak. 10 kasu horietan, adingabe horien profilari eta izan duten egoeraren kausei buruzko datuak emango dira jarraian.

**51. taula. Kausa judizialak dituzten mena taldekoen profila**

| Kodea | Urtea | Generoa | Edad | Nazionalitatea | Babesean emandako denbora | Eskolatua gaur egun |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2006 | Gizona | 13 | Marokoarra | Urtebetetik gora | Bai |
| 2 | 2006 | Gizona | 17 | Marokoarra | Hiru eta sei hilabete artean | Ez dakigu datua |
| 3 | 2006 | Gizona | 16 | Marokoarra | Ez dakigu datua | Ez dakigu datua |
| 4 | 2006 | Gizona | 15 | Marokoarra | Urtebetetik gora | Bai |
| 5 | 2006 | Gizona | 17 | Marokoarra | Urtebetetik gora | Bai |
| 6 | 2007 | Gizona | 17 | Aljeriarra | Urtebetetik gora | Ez dakigu datua |
| 7 | 2007 | Gizona | 16 | Marokoarra | Urtebetetik gora | Bai |
| 8 | 2007 | Emakumea | 17 | Errumaniarra | Astebete baino gutxiago | Ez dakigu datua |
| 9 | 2007 | Emakumea | 17 | Errumaniarra | Astebete baino gutxiago | Ez dakigu datua |
| 10 | 2007 | Emakumea | 15 | Errumaniarra | Astebete baino gutxiago | Ez dakigu datua |

Iturria: Geuk eginikoa.

**52. taula. Kausa judizialen xehetasunak**

| Kodea | Lehen kausa | Bigarren kausa | Hirugarren kausa | Laugarren kausa | Bosgarren kausa | Seigarren kausa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Lapurretagatik atxilotua | Atxilotua | Erasoa | Erasoa | Erasoa | Erasoa |
| 2 | Ez dakigu datua | -- | -- | -- | -- | -- |
| 3 | Ez dakigu datua | -- | -- | -- | -- | -- |
| 4 | Ez dakigu datua | -- | -- | -- | -- | -- |
| 5 | Borroka diskoteka barruan, ebakiak sabelean botila batekin | -- | -- | -- | -- | -- |
| 6 | Ez dakigu datua | -- | -- | -- | -- | -- |
| 7 | Ez dakigu datua | -- | -- | -- | -- | -- |
| 8 | Hainbat gauza lapurtzea | -- | -- | -- | -- | -- |
| 9 | Hainbat gauza lapurtzea | -- | -- | -- | -- | -- |
| 10 | Hainbat gauza lapurtzea | -- | -- | -- | -- | -- |

Iturria: Geuk eginikoa.

Kasu bakarra dugu gatazkatsua, erasoak behin eta berriz egiten dituen adingabea. Gainerako kasuetan, kausa bakarra dago. Delitua egiten duten neskei dagokienez, jabetzaren kontrako faltak edo delituak baino ez dira; mutilekin, borrokak edo erasoak nagusi direla dirudi.

Bereziki deigarria da kausa judizialak dituzten adingabeen kopuru txikia guztizko laginarekiko, adingabe horien gainean batzuetan transmititzen den gizarte irudiarekin alderatzen badugu.

## 9.13. Genero-ikuspegia: desberdintasunik al dago nesken eta mutilen artean?

Sekzio honetan, zenbait datu estatistiko egin dira, lagundu gabeko neska-mutil etorkinen arteko desberdintasunak bilatzeari buruzkoak. Zenbait aldagaitan, desberdintasun adierazgarriak aurkitu dira; baina, nolanahi ere, arreta handiz irakurri behar dira datu horiek, laginean 13 emakume besterik ez eta guztira 316 gizon daudela kontuan hartzen badugu.

### 9.13.1. Aldagai kuantitatiboak

Zenbait aldagai kuantitatibo garrantzitsurekin, T proba bat egin zen mutilen eta nesken arteko batez besteko alde adierazgarririk dagoen jakiteko. Zehazkiago, hurrengo aldagaietan egiaztatu zenez, ez zegoen alde adierazgarririk MENA taldekoen sexuen arabera ($p>0.05$):

- Zentroan sartzean duten adina
- EAEko babes sisteman emandako guztizko denbora
- EAEko babes sisteman sartu baino lehen Estatuan emandako denbora
- Administrazio gestioak: hauexen artean igarotako denborak:
  - Sartzea eta familiarekin harremanetan jartzea
  - Sartzea eta osasun txartela eskatzea
  - Sartzea eta babesa eskatzea
  - Sartzea eta pasaportea eskatzea
  - Sartzea eta egoitza baimena eskatzea

Alde adierazgarri bakarra aurkituko dugu aldagai kuantitatiboetan. MENA taldekoak izaten diren zentroen guztizko kopuruan, alde adierazgarriak daude gizonezkoen eta emakumezkoen artean (1,99 zentroko batez bestekoa vs. 1,15), $p<0.01$. Hots, mutilak zentro kopuru handiagotan izaten dira neskak baino.

### 9.13.2 Aldagai kualitatiboak (kategoriakoak)

Era berean, generoen araberako alde adierazgarririk zegoen egiaztatu nahi zen zenbait aldagai kategorikotan. Horretarako, Pearsonen Chi karratuko probara jo zen. 53. taulan, jarraian, proba horien emaitzak emango dira labur-labur.

**53. taula. Kategoria aldagaien arteko erlazioak**

| Aldakorra | Desberdintasun nabarmenik al dago mutilen eta nesken artean? | Esanahia (X2 proba) | Ondorioa: |
|---|---|---|---|
| Hezur-probak eginaraztea | EZ | $p > 0.05$ | Ez dago generoen arteko desberdintasun nabarmenik |
| Dokumentazioa izatea | BAI | $p < 0.05$ | Emakumeek dokumentazioa ekartzen dute gizonek baino gehiago |
| Polizi txostena | EZ | $p > 0.05$ | Ez dago generoen arteko desberdintasun nabarmenik |
| Babes, errolda eta pasaporte eskaera | Ez dago zehazterik | --- | Ezin eskaini daiteke emaitzarik (datu gutxi) |

Iturria: Geuk eginikoa.

Babesa, errolda eta pasaporte eskaerekin gertatzen den bezala, zenbait aldagaitan ezin jakin dezakegu fidagarritasunez generoen araberako desberdintasunik dagoen, zeren eta oso neska gutxiri buruzko datuak baititugu; batzuetan, neska bakarrari buruzko datua dugu (edo ez dago batere). Nahiz eta lagineko emakumeen kopurua oso txikia izan, egia da ere datuak falta direla neska horien espedienteetan eta, beraz, mugatu egiten dira adingabeon profila ezartzeko aukerak, baita gizonezko lagunen desberdintasunak ere.

Nesken datu urriak direla-eta, ezin izan dugu egiaztatu aldagai hauen arteko desberdintasunik dagoen:

- Famili txostena
- Harremanak familiarekin
- Jatorrizko eskolatzea
- Eskolatzea gaur egun
- Lanean aritzea gaur egun
- Jarraipen-txostenak eta jarraipen-bilerak
- Azterketa medikoa
- Emantzipazio-plana

## 10. ONDORIOAK

Atal honetan, ikerketa honen ondorioak emango dira. Horretarako, adingabearen eta babes sistemarekin duen erlazioaren inguruko zenbait emaitza nagusi gogoraraziko dira; hala, lorturiko emaitzei jarraituz, adingabearen estatutu juridikoaren eta pertsonalaren alderdi bakoitzaren ondorio nagusiak azalduko dira, babes sisteman sartzen denetik irteten denera arte.

### *Adingabearen profila: generoa, bizi den probintzia eta nazionalitatea*

Aztertu ditugun adingabeak ia denak gizonezkoak dira, eta migrazio proiektu bati jarraituta etortzen dira Espainiako estatura. Jatorrizko herrialdetik kanpora dauden haurrak eta gazteak dira, 18 urtetik beherakoak, gurasoengandik eta amarengandik, lege tutorearengandik edo haien interesak legez edo usadioz zaintzen dituen arduradun batengandik banatuak. Bakar-bakarrik daude. **Gehienak mutilak dira (%96), eta nesken kasuak oso gutxi direla esan daiteke (%4).**

Portzentaje altu bat Marokokoa da (%78,1), baina beste toki batzuetatik datozen MENA taldekoan igoera berria baina oraindik txikia antzematen da, hala nola Afrika beltzekoak eta, berrikiago, Ekialdeko Europakoak.

**MENA gehienak gizonezkoak dira**

### *Genero-ikuspegia*

Sekzio honetan, zenbait datu estatistiko aurkeztuko dira, lagundu gabeko neska-mutil etorkinen arteko desberdintasunak bilatzeari buruzkoak. Zenbait aldagaitan, desberdintasun adierazgarriak aurkitu dira; baina, nolanahi ere, arreta handiz irakurri behar dira datu horiek, laginean 13 emakume besterik ez eta guztira 316 gizon daudela kontuan hartzen badugu.

Aurkikuntzarik garrantzitsuena, beharbada, nesken eta mutilen artean dagoen antzekotasuna izan daiteke garrantzizko zenbait aldagai kuantitatiborekin. Hala, egiaztatu ahal izan zenez, **ez** dago MENA taldekoen generoaren araberako desberdintasunik estatistikaren aldetik. Zehazkiago, hauexek izan ziren aldagaiak: (1) adingabearen adina zentroan sartzean; (2) EAEko babes sisteman emandako guztizko denbora; (3) EAEko babes sisteman sartu baino lehen Estatuan emandako denbora; eta (4) adingabea babes sisteman sartzen denetik eta babes zentroetan eginkizun horien arduradunek zenbait gestio egiten dituztenera arte igarotako denbora.

Alde adierazgarri bakarra aurkituko dugu aldagai kuantitatiboetan: mutilak neskak baino zentro desberdin gehiagotan izan dira, eta ildo horretan, emakumeentzako zentroen kopurua ere askoz txikiagoa delako izan daiteke.

Aldagai kategorikoei dagokienez, hauxe da egiaztatu ahal izan den desberdintasun adierazgarri bakarra: emakumeek gizonekoek baino gehiago zekarten dokumentazioa.

Emaitzetan azaldu denez, ezin izan da egiaztatu desberdintasunik dagoen zenbait aldagai kategorikotan, horri buruzko datu urriak direla-eta.

Hortaz, datu horiek izanda, ondorio bakar batzuk baizik ezin atera ditzakegu. Alde batetik, azterlan honetan jorraturiko gai asko aztertzeko zailtasuna, eta bereziki generoaren kontua, zeren eta sarritan erabili izan diren iturriek ez baitituzte bildu beharrezko datu guztiak. Bestetik, esku artean ditugun datuekin, ia ez da desberdintasunik antzeman lagineko mutilen eta nesken artean; izan ere, oso antzeko profila dute eta nahikoa antzeko tratamendua adingabeak babesteko sisteman.

**Azken gogoeta egin daiteke gure laginean neska urriak izateari buruz. Nabarmendu beharra dago nesken kasua oraindik gure testuinguruan ikusten edo azaleratzen ez den gertaera dela, beharbada gure herrialdean duten presentzia sexu esplotaziorako pertsonen trafikoko sarearekin edo etxeko lanak betetzeko pertsonekin lotuta egoten baita. Ondorioz, aurrera jarraitu beharko du neskekin izan beharreko gizarte-hezkuntzako esku-hartzeak eta hemen azaldutakoa ez bezalakoa izan behar du.** Asilo eskaera baten bidez edo modu irregularrean sartu dira herrialdean.

**Ikasten da gertaera da adingabea atzerritarra**

***Adingabearen profila : adina***

Adingabea izatea nahiz atzerritarra izatea ondorio juridiko garrantzitsuak dituzten bi baldintza pertsonal dira. Ordenamendu juridikoak ondorio juridikoak ematen dizkio pertsona adingabea izateari eta atzerritarra izateari, baina bi ezaugarri horietan tirabira argia dago, zeren ordenamendu juridikoak adingabeak babesten baititu. Atzerritarren egoera juridikoa araupetzen duen araudiak, aldiz, baldintza zailak exijitzen ditu egoitza baimena eskuratu ahal izateko, atzerritarraren jatorria edo nazionalitatea edozein dela ere, eta zigorra jasotzeko arriskua du eta, ondorioz, herrialdetik egotzia izan daiteke.

**Ipar Amerikako maila ertain-altuko biztanleria zuriarekin egin da Greulich-Pyleren Atlasa**

Adingabea egoitza baimenaren titularra izango da baldin eta helduekin lagunduta ez badago eta laguntza moralik ez dagoela eta babeserako baliabide egokirik ez dagoela egiaztatzen bada.

Identifikazio-agiri baten bidez egiaztatu ohi da atzerriaren adina, identitatea bezala; pasaportea edo baliozko beste edozein agiri izan ohi da, baina adingabeek adina egiaztatzen dutenean, atzerritarraren legeria nazionalak

baliozkotzat jotzen duen beste edozein identifikazio-agiri onartzen da alde horretatik. Agiriari esker, modu sinesgarrian jakin daiteke adingabearen adina zein den.

Alabaina, jakinekoa denez, adingabeak modu irregularrean sartu ohi dira gure herrialdean, dokumentaziorik gabe, baina adingabeei aplikatu beharreko araubide juridikoa balia dezakete; izan ere, araudi horrek ez dakar berekin lurralde nazionaletik urruntzeko neurriak aplikatzea zigor gisa (egoztea), baizik eta soilik adingabearen famili integrazioagatik hartu beharrekoak. Estatuko segurtasun indarretako eta kidegoetako kideek atzemandako ustezko adingabe atzerritar asko, haien adina egiaztatu ondoren, adin nagusikoak izaten dira.

**Batez besteko adina 16,1 urtekoa da**

Ildo horretan, adina da ikerketa honen aldagairik bereizgarrienetako bat, zeren eta, adingabe askorentzat, hainbat iturri baititu datu horrek. Alde batetik, adingabeak berak adierazitako adina; bestetik, proba medikoen bidez ezarritakoa (hezur-probak). Hortaz, adinari buruzko datuak iturriaren arabera ematen dira, eta iturriak ez datoz bat adingabe berari buruzko datuak eskuragarri daudenean.

Esku artean ditugun datuekin egiaztatu ahal izan denez, 12 eta 18 urte bitarteko adina da, eta adingabeak adierazitako batez besteko adina 16,1 urtekoa da. Laginean soilik 12 urte dituzten haurren presentzia agerrarazi dela nabarmendu behar da.

Hezur-proben bidez kalkulaturiko adinari dagokionez, 79 adingabeengandik jaso da datua. Proba horien emaitza, batzuetan, uneko zenbatespena da, baina beste kasu batzuetan adin-tarte bat eskaintzen da, eta horien artean aurkituko da adingabearena. Hala, 79 adingabe horiei eginiko hezur-probek erakusten dutenez, 12 eta 19 urte bitarteko adina dute, eta batez besteko adina 15,8 urtekoa da.

Nahiz eta orokorrean gutxi gorabehera adingabeen %25i egin zaion proba, nabarmenak dira alde horretatik lurralde historikoen artean dagoen aldea. Hala, Gipuzkoan eta Araban ia adingabe guztiei egiten zaizkie hezur-probak; Bizkaian kontrakoa gertatzen da.

Beraz, adierazitako adina eta hezur-proben bidez zenbatetsitakoa ez datoz bat eta alde nabarmena dago, zeren eta kasuen %30 ez baitatoz bat adingabeak emandako datua eta profesionalaren zenbatespena; zehazkiago, emandako emaitzaren arabera, %19,5 adierazitakoa baino nagusiagoa da. %10,4k, berriz, txikiagoa dela ematen du, hezur-probetan azaldutakoa baino txikiagoa da. Gainerako %70,1ean, bat datoz adierazitako adina eta hezur-probak.

Datu horiekin ikus daitekeenez, errore-marjina dute interesdunaren adina zientifikoki eta ahalik eta zehatzen ondoriozta dezaketen adituen jardunek; izan ere, esana dugun moduan, datu hori ez du ematen beti zenbatespena egiten duen profesionalak.

Oraindik ez dago adina zehazki ezartzeko gai den metodo zientifikorik. Jakin badakigu hainbat teknika daudela eta horien artean Greulich eta Pyleren[20] probak dira gehien erabiltzen direnak; egiaztatu nahi den banakoaren erradiografiaren konparazioan oinarrituriko metodo deskriptiboa jarraitzen dute teknikok, eta horretarako, ikusizko atlasean egituraturiko zenbait erradiografia estandar erabiltzen dira. Hezur-adina atxikitzen zaio erradiografiari, hain zuzen ere antzekotasunik handiena duen estandarrari edo ondoz ondoko bi estandarren arteko bitarteko adinari dagokion erradiografia, bitarteko ezaugarriak direnean (patroi zurrunetan sartzeko prozesu dinamiko zail bat ebaluatzen ari dela ahaztu gabe).

[20] DURÁN RUIZ, Francisco Javier (2007) “Las Administraciones públicas ante los menores extranjeros no acompañados: entre la represión y la proteccion”, Granadako Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatearen aldizkari elektronikoa. http://www.refdugr.com/documentos/articulos/4.pdf. 15. or.

Metodoak abantaila bat du: erabiltzeko erraza eta bizkorra da, zeren eta, erabiltzeko "arauak" irakurri ondoren, erradiografia-problema eta eredua alderatzen baitira, argazki ereduaren alde banatan agertzen diren aldaketen azalpenak erabiliz.

Hala ere, eragozpen asko dira; nagusiena eta garrantzizkoena irakurketa erradiologikoaren subjektibotasuna da.

Beste eragozpenetako bat hezur-heldutasuna hainbat faktorek baldintzatuta egotea da: genetikoak, ingurumenekoak, gizarte-ekonomiakoak, etab. Greulich-Pyleren Atlasa egiteko, Ipar Amerikako maila ertain/altuko populazio zuria erabili da eta, horren ondorioz, aditu askok ondokoa planteatu dute: estandarrak azterlaneko xedeko populazio bakoitzari egokitzea, genetikaren, nutrizioaren, ingurumenaren edo gizarte-ekonomiaren berezko ezaugarriei erreparatuta.

Hortaz, orain arte eginiko metodoek adinen zenbatespenak baizik ezin eman ditzakete eta errore-marjina zabalak erakusten dituzte.

Horrez gain, zenbait adituk kokatu gabekotzat jotzen dute Ministerio Fiskalaren posizioa. Ministerio Fiskalak adina kalkulatzeko agintzeko betebeharra du, baina zalantzan jar daiteke ustezko adingabea probak egitera behartzeko duen aginpidea. Adingabeen Emilio Calatayud epaileak zalantzak ditu Atzerritarren Legea alde horretatik konstituzionala izatearen gainean, eta bere buruari galdetzen dio Ministerio Fiskalak proba erradiologikoak baimendu edo agindu ditzakeen, eta atzerritarrak probak egin nahi ez baditu, zein ebazpenen bidez erabaki dezakeen Ministerio Fiskalak adina (epaileak orain arte Ebazpena erabilita egin izan dute), baita ekintza horren aurrean interesdunak zein baliabide izango lituzkeen ere. Calatayuden iritziz, halakoetan instrukzioko epaileak izan beharko luke eskumena; horixe litzateke zuzenena. Fabrega Ruizek, fiskala den aldetik, oinarrizko eskubideak uki ditzaketen neurriak hartzeko eskumena zeini dagokion planteatzen dio bere buruari hala nola adingabea erradiografiak egitera behartzea, zeren eta, ustezko adingabe etorkin bat aurkitu izana Ministerio Fiskalari jakinaraztea (adingabeen organo babeslea), zuzena bada ere, ez baitu eskumen konstituzionalik atxiloketa prebentiboa ez bezalako neurriak hartu ahal izateko, Auziperatze Kriminalaren Legearekin bat etorriz, Estatutu Organikoaren 5. artikuluaren arabera.

**Maiz gertatzen da adierazitako adina eta hezur-proben bidez kalkulaturikoa bat ez etortzea, %30 inguruan ez datoz bat**

Epaile horren aburuz, beharrezkoa izango litzateke ahalmena ematen duen epailearen baimena, gatazkan diren interesak haztatuko dituena, zeren hemen ez baita gertatzen delitu baten ikerketan bezala (oso maiz gertatzen da halakoetan erradiografiak egitea drogen trafikoa ikertzeko, noiz-eta droga horiek gorputzean eramaten direnean). Eremu zibilean, lehenik eta behin, adingabeak proba egitea[21] baimentzea edo ukatzearen baliozkotasuna erabaki beharko dugu.

Baldin eta adingabearen interesa beste edozeinen aurretik jartzen badugu, hezur-probak egitea murrizteko irizpidea aplikatu beharko litzateke, hots, proba horiek kasu bakarrean baizik ezin izango dira aplikatu: etorkina adingabea izateari buruzko zentzuzko zalantzak daudenean edo adina zehazki ezarri beharra dagoenean eta adingabeak eskubideren bat behar bezala erabiltzeko ezinbestekoa denean, edo etorkina eta adina erabat identifikatzea lortzea ezinezkoa edo ordura arte itxarotea gomendagarria ez denean, benetako adina modu sinesgarrian identifikatu eta egiaztatuko duen agiriaren bidez.

[21] Gai hori Estatuko Fiskal Orokorraren azaroaren 10eko 1/2009 Galderan aztertu da. Lagundu gabeko adingabe atzerritarren adina ezartzeko espedienteei buruzko kontuen gaineko galdera da.

### *Sartzeko baldintzak*

Atal honetan, harrera ibilbideari buruzko ondorioak azalduko dira, adingabeak ingresatzen denetik administrazioak haren tutoretza bere gain hartzen duenera arte.

Lehenik eta behin, nabarmendu beharra dago berdinen taldearekin planifikatu ohi dela migrazio bidaia, eta maiz egiten da kamioipean edo autobuspean eta berrikiago pateretan.

Hala, 2002ko amaierara arte, gehienbat itsasontzietan edo kamioi baten ardatz pean ezkutaturik emigratzen dute adingabeek (Uharte Kanariarretako Tarfayara zihoazen haurrak izan ezik; patera erabiltzen zuten). Baina, 2003az gero, gora egin du Andaluziako kostaldera pateretan iristen diren adingabeen kopuruak. Horrek aldaketa dakar: haurren immigrazioaren “paterizazioa”.

**Harreren %48,6 gauez egiten da, edo goizaldean, 20:00etatik 07:55era bitartean**

SIVE abiarazi ondoren, aldatu egin dira pateren ibilbideak. Guardia Zibilak aurki ez ditzan, kostaldean sartzeko beste toki batzuk aukeratzen dira, gehienbat Granada, Almeria eta Uharte Kanariarrak. Askoz bidaia arriskutsuagoa da, eta gainera, garestiagoa.

Irailean izaten da sarrera gehien, eguraldi onagatik eta trafiko handiena biltzen den garaia delako.

**Adingabeek mugikortasun handia dute Espainiako estatuaren barruan (autonomia batetik bestera aldatzen dira lekuz) zein Europar Batasunaren baitan. Toki bat edo beste aukeratzean, nolabaiteko behin-behinekotasuna izaten da beti, helburuak lortzearen araberakoa baita aukeraketa.**

**Polizi bulegoetan sartzeko ordua da ezaugarririk deigarrienetako bat; harreren %48,6 gauez izaten da, edo goizaldean, 20:00etatik 07:55era hain zuzen ere. Puntu honetan, informaziorik ez dugun datu bat aurkituko dugu: adingabe horiek polizi bulegoetan ematen duten denbora. Oso informazio interesgarria da geroko ikerketarako.**

Nagusi den **jatorrizko zerbitzua**, oro har, Ertzaintzarena dela ikus dezakegu: lagineko guztizkoaren %38,2. Lurralde historikoen araberako azterketa eginda, ordea, jatorrizko sistema desberdina da. Hala, Gipuzkoan, Ertzaintzarenetik dator %59; Bizkaian, Polizia Nazionalenetik dator %40,8. Araban, berriz, Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzuak egiten du zerbitzua.

**Ez dakigun beste datu bat polizia-etxeetan adingabeekin jarduteko modua da; ildo horretan, informazio hutsune handia dago. Biltzen ez diren beste datuetako bat da haien eskubideen alde egingo duen abokatu independente baten laguntza izateari buruzko informazioa ematen zaien. Aurreko puntuetan esana dugunez, askok ez dakite hizkuntza eta, beraz, ez dute haien eskubideen berri.**

Beste puntu garrantzitsuetako bat LOEXISen 35.5. artikuluaren gainekoa da, eta horri buruz ere ez dago informaziorik. Artikulu horren arabera, dokumenturik gabeko adingabe atzerritarra aurkitu ondoren, Estatuko Segurtasun Kidegoek eta Indarrek beharrezko neurriak hartuko dituzte adingabea identifikatzeko, haien babesaz arduratzen den nazioko edo atzerriko erakunde publikoren batean balizko erreferentzien berri izate aldera. Legeak gehitu duenez, datu horiek ezin erabil daitezke beste edozein xedetarako, baina datuon ondorioz atzerritarra adin nagusikoa dela egiaztatzen bada, hatz-markak SAIDen sartzen dira (Hatz-marken bidezko Identifikazioko Sistema Automatikoa), zertarako-eta, berriz ere atxilotzen bada, bere burua adingabetzat aurkeztea galarazteko.

**Dokumentu pertsonalei** dagokienez, %75,5ek ez darama dokumenturik; inolako dokumenturik gabe agertzen dira. Ildo horretan, lurralde historikoen artean dauden desberdintasunak nabarmentzen dira. Hala, Bizkaian, adingabeen %81,1ek ez darama dokumenturik; Gipuzkoan gutxiago dira, %69,2, eta Araban, berriz, %37,5 dira dokumenturik gabekoak. Azken kasu horretan gogoratu beharra dago Estatuko Segurtasun Kidegoek eta Indarrek ez dutela arreta eta desbideratze zerbitzua egiten, Larrialdietako Udal Zerbitzuak baino.

**Poliziaren txostenari** dagokionez, bildutako kasu guztien %91,2k du polizi txostena.

Aipatu beharreko beste puntu bat lagundu gabeko adingabe atzerritarraren babesik ezari buruzko adierazpena eta haren egoerarako egokiak diren babes neurriak hartzea da. Hala, baldin eta Segurtasun Indarrek atzerritar bat aurkitzen badute eta zalantzarik ez badago edo adingabea dela egiaztatu bada hezur-proben bidez, hauxe ezarri du argi eta garbi LOEXISen 35. artikuluko 2. idatz-zatiak: "Ministerio Fiskalak adingabeak babesteko zerbitzu eskudunen esku jarriko du".

Ildo horretan, azterturiko 312 kasuen %82,4an ez dago sarrera gauzatzeko fiskaltzaren agindurik.

Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoako adingabeen %87,3k du fiskaltzaren agindua, Bizkaiko espediente guztien %79,4k eta Arabako batek ere ez (%100ek ez du fiskaltzaren agindurik).

Fiskaltzak haren eskuan jarrita, praktikan, antzeman den tokiko adingabeak babestearen arloko eskumena duen herri administrazioaren zaintzapean gelditzen da adingabea. Adingabea babesik gabekotzat adieraztea izango litzateke bidezkoa, haren egoera pertsonala eta familiarra egiaztatu eta berehala, baita haren zaintzaz arduratzen diren pertsonengandik banatuta egotea ere, administrazioak adingabearen babesa bere gain har dezan. Hala, euskarri juridikoa emango zaio ondoren adingabearekin egingo den esku-hartze orori.

Alabaina, adingabea izatezko zaintza pean baino ez da izaten askotan harrera zentroan, babesik gabe egoteari buruzko adierazpenik izan gabe. Behin-behinekotasunean aurkitzen da, zeren eta, haren egoera pertsonalari eta familiarrari buruzko ikerketak egin ondoren, ez baita babesik gabekotzat jotzen eta, ondorioz, administrazioak ez du haren tutoretza bere gain hartzen, ezta egoitza baimen-eskaera aurkeztu ere.

***Administrazio gestioak***

**Eskaturiko tutoretzen** kopuruari dagokionez, dakizkigun adingabe guztien %93,6ri eskatu zaiola esan behar da. Horietatik %87,8 eman egin dira. Lurralde historikoen arabera ikus daitekeenez, adingabe guztiei eman zaie tutoretza Araban eta Gipuzkoan. Bizkaian, berriz, %91,5i (kontuan izan behar da portzentaje horiek nabarmen txikiagoak izango direla harreran izandako adingabe guztiak aintzat hartzen baditugu eta ez eginiko eskaeren kopuruaren gainekoa).

Tutoretza bere gain ez hartzeak ondorio juridiko nahikoa kaltegarriak dakarzkio adingabeari, gure herrialdean babes zentro batean izatea bermatuko duen dokumentazioa eskuratzea galarazten diolako. Izan ere, babes zentro batean zainduta eta babestuta egongo litzateke adingabea; hala ere, ez luke izango haren izenean bestelako jarduketa garrantzitsuak egin ahal izango lituzkeen tutorerik, gehienbat egoitza baimena eskatu ahal izateari begira eta adingabea normaltasunez gizarteratzeari eta laneratzeari begira.

Behin-behinekotasuneko egoera da harrera zentroetan diren adingabe etorkinen administrazio babesik ezaren ondoriozko beste ondorioetako bat; ez dakite euren herrialdera itzuli beharko duten edo gurean behin betiko geratuko diren.

Administrazio gestiorik egin ez zaion adingabe kopuru handia dagoela esan behar da. Horrexegatik, adingabeek babes sisteman emandako guztizko denbora kontsultatu behar izan dugu zeren eta, batzuetan, hain denbora laburra ematen dute, ez baitago denborarik eskubideak aintzatesteko administrazio izapideak egiteko.

**Kasu askotan, adingabeek 18 urteko adina betetzen dute egoitza baimena lortu gabe, eta horrek egoera irregularra dakarkie**

**Erroldatzeari dagokionez** egiaztatu denez, azterturiko adingabeen herena baino ez da erroldatu. Horrek eskubideak erabiltzeari eragiten dio, eta hori hutsune garrantzitsua da. Horretaz ohartarazi nahi dugu ikerketa honetan.

Beste puntu interesgarri bat pasaportea da; hala, item hori aztertuta ikus dezakegunez, kasuen erdian baino gehiagoan ez da **pasaportea** eskatu. Desberdintasun hori lurraldeen arabera ere ikus daiteke. Adingabearentzako ondorioetako bat hauxe da: ezin izango dute egoitza baimena zein lan egiteko baimena eskatu eta eskuratu.

Puntu horretan dakigunez, esku artean ditugun datu guztien %58,9an ez da **egoitza baimena** eskatu. Eskaturiko egoitza baimenak aztertuz gero, adingabeek eskaturiko 109 baimenetatik 94 eman direla esan daiteke.

Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoan zen Araban, datua agerrarazitako kasu guztietan eskatu da egoitza baimena. Bizkaian datu hori dagoen espedienteetan, aldiz, %65,5ean ez da izapide hori egin.

**Egoitza baimena** eskatzeko denborari dagokionez, datuek erakusten dute eskaera egiteko batez bestekoa bederatzi hilabete eta erdikoa dela, eta hura lortzeko lau hilabete behar dira batez beste.

**Lan baimenak** direnez bezainbatean, soilik bost baimen eskatu dira, eta bostetan eman da. Hiru eskabide Bizkaian egin ziren, bat Gipuzkoan eta bestea Araban.

**Ezagutzen ditugun datuen %58an ez da egoitza baimenik eskatu**

Ikus daitekeenez, kasu askotan egoitza baimena lortu gabe betetzen dituzte adingabeek 18 urteak. Ondorioz, egoera irregularrean eta bazterkerian bizi behar dute adin nagusikoak izan arte, eta kalean edo bizimodua ahal duten moduan ateratzen buka dezakete (esplotazioa, delinkuentzia...).

Beraz, adingabeen autonomiara eta beren kabuz moldatzera daude bideratuta haiekin babes sisteman dauden bitartean eginiko ahaleginak eta lanak, baina ez du ezertarako balio egoitza eta lan baimenak lortu ezean.

Horrek ezegonkortasun handia dakarkie neska-mutilei. Baimenen gaineko ziurgabetasunak asko zailtzen du adingabeekin eginiko gizarte lana. Are gehiago: batzuek kalean bizi izatea nahiago dute babes sisteman konfiantzarik ez dutelako.

Horregatik, proposamenen artean, lehenik eta behin, adingabeen erregularizazioa eskatzea da, hain zuzen ere Espainiako estatuan izatea adingabearen goi interesekotzat har daitekeenean, izapide hasteko 9 hilabete igaro arte itxaron barik.

Nolanahi ere, babes sisteman 9 hilabete eman ondoren, baimena eman beharko litzateke, araudiak adingabea edozein unetan aberriratzea ahalbidetzen baitu, egoitza baimena izanik ere.

Gainera, atzerapena, balizko arbitrariotasuna edo tratu desberdina prebenitzeko lagungarria izateko, zenbait irizpide adostu eta argitaratu beharko lirateke. Irizpide horien bidez, lagundu gabeko adinga-

bearen dokumentaziorako eta erregularizaziorako gehieneko epeak eta berariazko prozedurak adieraziko dira zehazki. Lagundu gabeko adingabe atzerritarrei egoitza baimena emateko, zentzuzko epeak bete beharko lirateke.

***Ibilbidea***

Adingabe horiek EAEra iritsi arte egiten duten migrazio bidaia da nabarmendu beharreko gertaeretako bat.

Lehenik eta behin nabarmendu beharra dago EAEko babes sisteman sartu baino lehen toki bakar batean izaten direla adingabe gehienak. Adingabe gutxik dute bigarren, hirugarren edo laugarren egonaldia beste hiri batzuetan. Nolanahi ere, adingabean bigarren eta hirugarren tokian izaten denean, oso antzekoa da egonaldiaren batez besteko iraupena. Hauexek dira jatorrizko hiri nagusiak: Algeciras, Bartzelona, Almeria eta Madril. Ildo horretan, zentroen edota administrazioen artean harremanik eduki izanari buruzko informaziorik ez zegoen espedienteetan.

Gure babes sisteman sartu baino lehen lehenengo tokian izandako egonaldiaren iraupenari dagokionez, datuek erakusten dute adingabeen portzentajerik handienak egonaldi laburrak dituela (%38), gehienez astebetekoak, baina kasu kopuru handi batean sehi hilabete eman dute hiri horietan.

EAEko babes sistemako ibilbidea aztertuta ikus daitekeenez, adingabeen kopuru handi bat harrerako lehen tokian biziko da. Beste askok, ostera, hainbat babes zentrotako (eta erreformako zentroak) ibilbidea osatzen dute, eta muturreko kasu batean, zazpi zentro desberdinetan izandako adingabe bat dugu. Ibilbideak ondoko bi hauek uzten ditu argi. Lehenik eta behin, sisteman sartzean, adingabe kopuru handia zentro beretik pasatzen dela ikus daiteke, normalean lehen harrerako zentro batetik; bigarren tokira pasatzean (eta ondorengoetara), lagina sakabanatu egiten da, eta babes zentro kopuru handian eta askotarikoan izango du ostatu. Bigarrenik, lagineko zati txiki argi eta garbi zentro gehiegietan bizi dela esan daiteke. 27 pertsona lau zentro desberdin edo gehiagotan bizi dira haien babesak iraun bitartean. Bidezkoa da galdetzea ea elementuren batek bereizten dituen neska-mutil horiek eta zentro kopuru txikiagoan bizi direnak; aztertzeko puntu interesgarria izango litzateke geroari begira.

***Egoitza testuingurua***

Dakizkigun adingabeen %98,8k jatorrizko familiarekin izan ditu lehen harremanak babes sisteman izan den denboran. Azterlan honetan azterturiko beste datu batzuekin gertatu bezala, ez dakigu harremanik izan diren 160 adingaberekin, langinaren zati handi batekin hain zuzen.

Familiarekin izandako harremanei dagokienez, interesgarria izan da adingabea babes sisteman sartzen denetik familiarekin harremanetan jartzeko ematen duen berandutzea aintzat hartzea. Zazpi adingabeen datua baino ezin izan da jakin. Beraz, batez besteko berandutzearen zenbatespena ez da fidagarria kasu honetan. Orientazio gisa esan beharra dago zazpi adingabe horiek batez beste 3 hilabete behar izan zutela harremanetan jartzeko, babes sisteman sartzen denetik.

***Eskola testuingurua***

Hezkuntza da, formala eta formala ez dena, etorkinak gizarteratzeko funtsezko zutabeetako bat, eta aukeren benetako berdintasuna bideratzeko norainoko handiagoko baliabideetako bat da. Etorkin asko biltzen den hirietako edo berariazko eremuetan edo zenbait sare edo zentrotan hezkuntzaren gestio txarrak, epe luzera, ertainera eta epe luzera, arazo bat dakar, gure gizarteetako kohesio sozialaren eta benetako gizarteratzearen kontra. Gizarte, hezkuntza eta konpentsazio politikek egoera horiek saihestu behar dituzte, eta ikasle guztiek hezkuntzarako duten eskubidea praktikara eramango da modu errealean eta eraginkorrean.

Ildo horretan esan beharra dago ezen, jatorrizko herrialdeetako eskolatzeari dagokionez, ez dugula MENA taldekoen datu hori buruzko kasu askorik, baina azterturiko 38 kasuetatik, 36 eskolatuta zeuden.

Babes sisteman dauden bitartean eskolatuta egoteari dagokionez, adingabe guztiak daude eskolatuta, baina kopuru handi bati buruzko daturik ez dago (laginaren erdia baino gehiago). Lorturiko 141 datuetatik, 65 adingabek LHIra jotzen dute, eta ondoren Lan Heziketa dago, guztira 20 adingaberekin. LHIko ikasketak (Lanbide Heziketa), beraz, nagusi dira laginean.

***Egoera komunitarioa***

Egoitzaren testuinguruaren barruan ikus dezakegunez, datuak dituen kasuen %97,6ri jarraipen-txostena egin zaio, baina kontuan izan behar da ez dugula MENA taldekoen gehiengoaren gaineko daturik. Dinamika bera gertatzen da lurralde historikoen arabera.

MENA taldeko gehienak famili gunearekin bizi zen jatorrizko herrialdean.

Familia ez da elementu aktiboa adingabeak alde egiteko plangintzan, baina kasu askotan hala egitearekin ados agertzen da edo etsi egiten du alde egitearen inguruan. Bildutako datuen arabera, adingabeek familiarekin harremanetan jarraitzen dute telefono bidez.

***Osasuna***

Osasun-txartelaren eskaera eta emakida aztertzean, ez dugu 187 adingabeen gaineko daturik, baina emandako datuen arabera, 141 adingaberi eskatu zaien osasun-txartela eta 132ri eman.

Osasun-txartela eskatzeko berandutzeari dagokionez, 49 adingabeen datua besterik ez dakigun arren, kasuen %44,9an 6 hilabete eta urtebete bitarteko berandutzea gertatzen da izapide horretan.

Adingabeak zentroren batean hartzen denean egiten zaien azterketa medikoa denaz bezainbatean, dakizkigun datuak ikusita, 139k izan du azterketa medikoa, hots, %98,6k. Dinamika bera gertatzen da lurralde historikoen arabera. Horietatik gehienek osasunari buruzko diagnostiko ona dute eta, beraz, ez zuten nabarmentzeko moduko zailtasun medikorik izan.

***Tutoretzari uztea***

MENA taldekoek babes sisteman ematen duen denborari dagokionez, esku artean ditugun datuen arabera (223 adingabe) jakin badakigu horietako kopuru handi batek, %35 hain zuzen, urtebetetik gorako aldian jaso zuela babesa, eta beste talde handi bat sei hilabetez egon zen babespean (%20). Beste muturrean, oso egonaldi laburrak ditugu, eta %21ek egin ditu gehienez astebeteko egonaldiak babes sisteman. Datu horien arabera, adingabeek, batez beste, 10 hilabete ematen dituzte EAEko babes sisteman.

Babes sistematik irteteko zioen barruan, esku artean ditugun datuek erakusten dutenez, hamazortzi urte bete dituelako irten da ia erdia. Kontrako zio bat ere badago sistematik irteteko (maiztasunean): adingabeak babes zentroak bere borondatez uztea, %36 hain zuzen.

Emantzipazio plana aztertzen badugu, datu hori dugun ia kasu guztietan izan da adingabeentzako emantzipazio plan bat, baina ez dugu gehienen datuaren berri.

Tutoretzari utzi ondorengoko lanari edo bizitzeko bideei dagokienez, informazio gutxi dago; hiru adingabek diru-laguntzak dituztela baizik ezin izan dugu jakin. Lagineko gainerakoetan –ia lagin osoa– ez da aurkitu informazio hori erabilitako bizitza-txostenetan edo espedienteetan.

# 11. BIBLIOGRAFIA AIPAMENAK

ACNUR (1994):
Los niños refugiados. Directrices sobre protección y cuidado. Geneva: ACNUR.

ARARTEKO (2005):
Situación de los menores extranjeros no acompañados en la CAPV, Arartekoaren aparteko txostena, http://www.ararteko.net/webs/iextras/menextran2005/menextran2005C.pdf.

BERGANZA, Isabel (2003):
Los menores extranjeros no acompañados en Bizkaia. Situación actual y propuestas de mejora. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea (karrera amaierako tesia).

BERMÚDEZ GONZÁLEZ, Mª del Mar (2004):
Los MINA: niños de la calle en la España del siglo XXI. Madril: Témpora.

CAPDEVILA, Manel y FERRER, Marta (2004):
"Estudio sobre los menores extranjeros que llegan solos a Cataluña", Migraciones, Universidad Pontificia de Comillas, 16, 121-156. orr.

CAPDEVILA, Manel y FERRER, Marta (2003):
Los menores extranjeros indocumentados no acompañados (MEINA), Bartzelona: Centre d´Estudis Juridics i Formació Especialitzada, Generalitat de Cataluña.

CASTILLO GODOY, Renata y ANGUREL LAMBAN, Mª José (2004):
El menor inmigrante no acompañado acogido en centros tutelados y en edad laboral en la Comunidad de Madrid. Madril: Ed. Témpora.

DEFENSOR DEL MENOR DE ANDALUCÍA (2003):
Informe especial al Parlamento. Menores inmigrantes en Andalucía. La atención en los centros de protección de menores. Defensor del Pueblo Andaluz, www.defensor-and.es.

DURÁN RUIZ, Francisco Javier (2007)
"Las Administraciones públicas ante los menores extranjeros no acompañados: entre la represión y la protección," Granadazo Unibertsitatearen Zuzenbide Fakultateko aldizkari elektronikoa. http://www.refdugr.com/documentos/articulos/4.pdf.

FUNDACIÓN PERE TARRÉS (2005):
Rutas de pequeños sueños: los menores migrantes no acompañados en Europa. Bartzelona: Pere Tarrés Fundazioa.

FUNES, Jaume (1999):
"Migración y adolescencia", en AJA, E eta beste batzuk: La inmigración extranjera en España. Los retos educativos. Bartzelona: La Caixa Fundazioa, Gizarte Azterketen Bilduma, 1, 119-144 orr.

GONZÁLEZ FERRERAS, Julia (ed) y SETIÉN, Mª Luisa (ed) (2005):
Diversidad migratoria: distintos protagonistas, diferentes contextos. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

JIMÉNEZ ALVÁREZ, Mercedes (2004):
Análisis de los procesos migratorios transnacionales de los menores de origen marroquí, Actas del 4º Congreso sobre la inmigración en España "Ciudadanía y Participación", Girona.

JIMÉNEZ ALVÁREZ, Mercedes (2004):
Buscarse la vida. Análisis transnacional de los procesos migratorios de los menores marroquíes no acompañados en Andalucía. Santa María Fundazioaren koadernoak, 3. zk.

KONRAD TORRALBA, Marc y SANTOJA PÉREZ, Vicenta (2005):
Menores inmigrantes: de los puntos cardinales a la rosa de los vientos. Valentzia: Promolibro.

MALAGÓN BERNAL, José Luis y SARASOLA SÁNCHEZ-SERRANO, José Luis (2005):
Manual de atención social al inmigrante. Kordoba: Almuzara.

ROMERO, M., RAMOS, M. y MARCH, J. (2002):
Perfil de los jóvenes transeúntes. Dificultades para la utilización de los servicios sociosanitarios y propuestas de mejora.

SÁNCHEZ, Lorenzo (2000):
Drogodependencias y exclusión social.

SAN JUAN GUILLÉN, Cesar (Ed) y CUESTA ARZAMENDI, José Luis de la (Ed) (2006):
Menores extranjeros infractores en la Unión Europea: teorías, perfiles y propuestas de intervención. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.

TAYLOR, S.J. y BOGDAN, R:
Introducción a los métodos cualitativos de investigación. Elkarrizketa sakona. Paidós Studio.

USANO, Eduardo (2000):
Régimen jurídico de las situaciones de los extranjeros en España (cont.): Indocumentados. Menores extranjeros. El registro central de extranjeros. Madril: Emakumearen Institutua.

# 12. ERANSKINAK

## 12.1. I. eranskina. Jaioterria, espedientearen arabera

| Jaioterriak | Kasu kopurua | % | Jaioterriak | Kasu kopurua | % |
|---|---|---|---|---|---|
| Ezezaguna | 14 | %4,3 | Ksar el Kebir | 5 | %1,5 |
| Abejaad | 1 | %0,3 | Ksar Mejrame | 1 | %0,3 |
| Abizad | 1 | %0,3 | Ksarait | 1 | %0,3 |
| Accra | 2 | %0,6 | Lachen | 1 | %0,3 |
| Achaacha-Mosta | 1 | %0,3 | Larache | 8 | %2,4 |
| Agoudim Ikhartame | 1 | %0,3 | Layounne | 1 | %0,3 |
| Alhirin | 1 | %0,3 | Mahamadir | 1 | %0,3 |
| Alnifi | 1 | %0,3 | Marrakex | 7 | %2,1 |
| Ameur Sale | 1 | %0,3 | Maroko | 12 | %3,6 |
| Aljeria | 3 | %0,9 | Mbark | 1 | %0,3 |
| Balt | 1 | %0,3 | Mbrak | 1 | %0,3 |
| Bamako | 1 | %0,3 | Mohammadia Mascara | 1 | %0,3 |
| Barlad | 1 | %0,3 | Moldavia | 2 | %0,6 |
| Bejaa- Khoribga | 1 | %0,3 | Mosku | 1 | %0,3 |
| Beni Amir Set | 1 | %0,3 | Moullaya Boussolhome | 1 | %0,3 |
| Beni Mellal | 12 | %3,6 | Old Sidi Mohamed Tomi | 1 | %0,3 |
| Bilbo | 1 | %0,3 | Omjron | 1 | %0,3 |
| Boulmane | 1 | %0,3 | Oran | 2 | %0,6 |
| Brasil | 1 | %0,3 | Orladn Hmaid | 1 | %0,3 |
| Bucaresti | 1 | %0,3 | Ouarhran | 1 | %0,3 |
| Cala des Sragha | 1 | %0,3 | Ouarzat | 1 | %0,3 |
| Camerún | 2 | %0,6 | Ouarzazate | 13 | %4 |
| Cape Coast | 2 | %0,6 | Oumena | 1 | %0,3 |
| Casablanca | 12 | %3,6 | Oved Zem | 1 | %0,3 |
| Cometra | 1 | %0,3 | Rabat | 5 | %1,5 |
| Boli Kosta | 1 | %0,3 | Rachidia | 34 | %10,3 |
| Csarcuira | 1 | %0,3 | Ressane | 1 | %0,3 |
| Dabou | 1 | %0,3 | Erroma | 1 | %0,3 |
| Dakar | 1 | %0,3 | Erumania | 5 | %1,5 |
| Dichane | 1 | %0,3 | Safi | 1 | %0,3 |
| Doouar Lahjar | 1 | %0,3 | Sahara | 3 | %0,9 |
| Douala | 1 | %0,3 | Mendabaldeko Sahara | 2 | %0,6 |
| Douar Ain Ksab | 1 | %0,3 | Sampa | 1 | %0,3 |
| Dovar Mellal | 1 | %0,3 | Seddikia | 1 | %0,3 |
| Dr.Old Boubker | 1 | %0,3 | Senegal | 2 | %0,6 |
| Drobeta Turnu Severin | 3 | %0,9 | Senlui | 1 | %0,3 |
| El Hadada | 1 | %0,3 | Serekunda | 1 | %0,3 |
| Elkhloufine | 1 | %0,3 | Settat | 1 | %0,3 |
| Farkharra,Nador | 1 | %0,3 | Severim Judetut Meheclimh | 1 | %0,3 |
| Fez | 3 | %0,9 | Slobozia | 2 | %0,6 |

| Jaioterriak | Kasu kopurua | % | Jaioterriak | Kasu kopurua | % |
|---|---|---|---|---|---|
| Galall | 1 | %0,3 | Stat | 1 | %0,3 |
| Gambia | 2 | %0,6 | Tamali | 3 | %0,9 |
| Ghana | 1 | %0,3 | Tanger | 72 | %21,9 |
| Guelmin | 1 | %0,3 | Tansita | 1 | %0,3 |
| Ginea | 1 | %0,3 | Tarfaya | 1 | %0,3 |
| Ginea Cronakry | 1 | %0,3 | Taza | 1 | %0,3 |
| Guiranwala | 1 | %0,3 | Tazarine | 1 | %0,3 |
| Herico- Lelouna | 1 | %0,3 | Telmi-Imelchil | 1 | %0,3 |
| Herico Belly- Gin | 1 | %0,3 | Tesa | 1 | %0,3 |
| Kala | 1 | %0,3 | Tetuán | 2 | %0,6 |
| Kalaseraghina | 1 | %0,3 | Tihert-Zarora | 1 | %0,3 |
| Kalea Srana | 1 | %0,3 | Tinghir | 5 | %1,5 |
| Kanka | 1 | %0,3 | Yaounde | 1 | %0,3 |
| Kasar Sagh | 1 | %0,3 | Zagora | 7 | %2,1 |
| Kasbah | 1 | %0,3 | Zagora Asksour | 1 | %0,3 |
| Kelaat | 1 | %0,3 | Zasi | 1 | %0,3 |
| | | | **GUZTIRA** | **329** | **%100** |

Iturria: Geuk eginikoa.

## 12.2. II. eranskina. Datuak biltzeko fitxa[22]

Datozen orrialdeetan, ikerlari-taldeak ikerketa egiteko beharrezko informazioa biltzeko prestaturiko fitxa agertuko da.

| | |
|---|---|
| Kodea | |
| Adingabearen inizialak | |
| Harrera etxea (azkena) | |
| Urtea | |
| Lurralde historikoa | |

Galdetegi honek egoitzako harreran dagoen adingabeari eta haren babes ibilbideari buruzko hainbat galdera dakartza. Adingabearen izena eta etxearena, jakina, isilekotasunik zorrotzenarekin erabiliko dira. **Ikerlari-taldeak konpromisoak izenpetu eta berme egokiak emango ditu datuen babesari buruzko legeriak bildutako informazioaren tratamenduan exijituriko isilekotasuna errespetatzen dela ziurtatzeko.**

[22] Jorge F. del Valle eta Amaia Bravo Arteagak Gipuzkoako Lurralde Historikorako eginiko fitxa oinarri hartuta (GIFI – Familia eta haurrak ikertzeko taldea) gauzatu da datuak biltzeko fitxa hau, Egoitza Harrerako Ebaluazio eta Erregistro Sistemaren bidez (SERAR): 2007ko uztaila.

## A) ADINGABEAREN OINARRIZKO DATUAK

### 1. IDENTIFIKAZIO PERTSONALA

A.1. Sexua: ***1. Gizona*** ❑ ***2. Emakumea*** ❑ 3. 99. Daturik ez ❑

A.2. Berak adierazitako adina: ................ 99. Daturik ez ❑

A.3. Auzitegiko medikuaren proba: 1. BAI ❑ 2. EZ ❑ 3. 99. Daturik ez ❑

Emaitza: ..........................................

A.4. *Proba mota:*

❑ Hezur-proba 1. BAI ❑ 2. EZ ❑ 3. 99. Daturik ez ❑ Data (uu/hh/ee):__/__/__

Emaitza: ..........................................

❑ Beste batzuk: 1. BAI ❑ 2. EZ ❑ 3. 99. Daturik ez ❑ Data (uu/hh/ee):__/__/__

Emaitza: ..........................................

❑ 99. Daturik ez

A.5. Nazionalitatea (jatorrizkoa): ................................................................ ❑ 99. Daturik ez

A.6. Dokumentazioa. ***BAI*** ❑ (IFZ ....................................... ) 2. ***EZ*** ❑ 3. 99. Daturik ez ❑

A.7. Adierazia ( ) edo Dokumentatua ( ) 99. Daturik ez ❑

A.8. Jaioteguna: …/.../… 3. 99. Daturik ez ❑

A.9. Jaioterria.............................................................................................. 99. Daturik ez ❑

### 2. SARRERAREN BALDINTZAK

A.10. Data (1. SARRERA): ..................................................................... 99. Daturik ez ❑

A.11. Jatorriko zerbitzuak (Ertzaintza…): ......................................................... 99. Daturik ez ❑

A.12. Herrialdean sartzeko modua:.................................................................... 99. Daturik ez ❑

A.13. Gaztelaniaren jakintza:
1. Ulertzen du........... ❑
2. Hitzezkoa............. ❑
3. Irakurtzekoa ......... ❑
4. Idatzizkoa ............ ❑
5. Ez dakigu............. ❑
6. 99. Daturik ez....... ❑

A.14. Adingabearen lehen hizkuntza: .......................................................... 99. Daturik ez ❑

A.15. Beste hizkuntza batzuk dakizki? : 1. BAI 2. EZ Zein? .................... 99. Daturik ez ❑

A.16. Aurkezturiko dokumentu pertsonalak: ..................................................................

.............................................................................................................................

## B) ADMINISTRAZIO KUDEAKETAK ETA LEGE KONTUAK

### 1. LEGE EGOERA

**B.1.** Lege egoera:
1. Behin-behineko babesa ................ ❑
2. Babesa ................ ❑
3. Borondatezko zaintza ................ ❑
4. Zehazteke, baloratzeko prozesuan ................ ❑
5. Beste batzuk ................ ❑
6. Daturik ez ................ ❑

**B.2.** Kasuko plana:
1. Banatzea itzultzeko aurreikuspenarekin (batzea) ................ ❑
2. Banatzea eta lurraldean famili harrerako prozesurako prestatzea ................ ❑
3. Emantzipaziorako prestatzea ................ ❑

**B.3.** Neurriaren iraupena (hilabeteak) ................

### 2. ADMINISTRAZIO KUDEAKETAK

**B.4.** ***Adingabearen babesa***
1- Eskatu al da? 1.BAI ❑ 2.EZ ❑ 3.99.Daturik ez ❑ Data (uu/hh/ee):__/__/__
2- Eman al zaio? 1.BAI ❑ 2.EZ ❑ 3.99.Daturik ez ❑ Data (uu/hh/ee):__/__/__

**B.5.** ***Erroldatzea***
1- Eskatu al da? 1.BAI ❑ 2.EZ ❑ 3.99.Daturik ez ❑ Data (uu/hh/ee):__/__/__
2- Eman al zaio? 1.BAI ❑ 2.EZ ❑ 3.99.Daturik ez ❑ Data (uu/hh/ee):__/__/__

**B.6.** ***Pasaportea***
1- Eskatu al da? 1.BAI ❑ 2.EZ ❑ 3.99.Daturik ez ❑ Data (uu/hh/ee):__/__/__
2- Eman al zaio? 1.BAI ❑ 2.EZ ❑ 3.99.Daturik ez ❑ Data (uu/hh/ee):__/__/__

**B.7.** ***Egoitza baimena***
1- Eskatu al da? 1.BAI ❑ 2.EZ ❑ 3.99.Daturik ez ❑ Data (uu/hh/ee):__/__/__
2- Eman al zaio? 1.BAI ❑ 2.EZ ❑ 3.99.Daturik ez ❑ Data (uu/hh/ee):__/__/__

**B.8.** ***Egoitza eta lan baimena***
1- Eskatu al da? 1.BAI ❑ 2.EZ ❑ 3.99.Daturik ez ❑ Data (uu/hh/ee):__/__/__
2- Eman al zaio? 1.BAI ❑ 2.EZ ❑ 3.99.Daturik ez ❑ Data (uu/hh/ee):__/__/__

**B.9.** ***Nazionalitatea***
1- Eskatu al da? 1.BAI ❑ 2.EZ ❑ 3.99.Daturik ez ❑ Data (uu/hh/ee):__/__/__
2- Eman al zaio? 1.BAI ❑ 2.EZ ❑ 3.99.Daturik ez ❑ Data (uu/hh/ee):__/__/__

## C) BABES IBILBIDEA

C.1. Harrerako egoitzaren izena (etxea edo zentroa).

C.2. Etxe mota.

C.3. Zentro/etxeko plaza kopurua.

C.4. Lagundu gabeko adingabe atzerritarrek hartutako plazen kopurua.

C.5. Taldearen kargua duten hezitzaileen kopurua.

C.6. Hezitzaileen sexua. 1. Gizonezkoak 2. Emakumezkoak 3. Mistoa

C.7. Zentro berean lanean dabiltzala dioten hezitzaileen kopurua iazkoarekin alderatuta.

C.8. Hezitzaileen baja kopurua iazkoarekin alderatuta.

C.9. Segurtasun-zaintzaileen kopurua.

| C.1 | C.2 | Noiztik | Noiz arte | C.3 | C.4 | C.5 | C.6 | C.7 | C.8 | C.9 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | |

## D) EGOITZA TESTUINGURUA

D.1. Ba al dago famili txostenik? 1. BAI ❑ 2. EZ ❑ 3. 99. Daturik ez ❑
Data (uu/hh/ee):__/__/__

D.2. Administrazioa harremanetan jarri al da jatorrizko familiarekin?
1. BAI ❑ 2. EZ ❑ 3. 99. Daturik ez ❑ Data (uu/hh/ee):__/__/__

## E) ESKOLA/IKASKETA TESTUINGURUA

**E.1.** Adingabea eskolatuta al dago bere jatorrizko herrialdean?
1. BAI ❑ 2. EZ ❑ 3. 99. Daturik ez ❑

**E.2.** Adingabea eskolatuta al dago gaur egun?
1. BAI ❑ 2. EZ ❑ 3. 99. Daturik ez ❑

**E.3.** Egiten duen maila edota espezialitatea: ................................................ 99. Daturik ez ❑

**E.4.** Harrerako lurraldean matrikulatuta egon den ikastetxe kopurua (egungoa barne) ................................................ 99. Daturik ez ❑

## F) LAN TESTUINGURUA

**F.1.** Lanean ari al da 2006-2007an? 1.BAI ❑ 2.EZ ❑ 3.99.Daturik ez ❑

**F.2.** Zein lan-kontratu mota dauka? ................................................ 99. Daturik ez ❑

**F.3.** Zein lan mota betetzen du? ................................................ 99. Daturik ez ❑

## G) GIZARTE EGOERA

**G.1.** Jarraipen-txostenik egin al da adingabe honentzat?
1. BAI ❑ 2. EZ ❑ 3. 99. Daturik ez ❑

**G.2.** Jarraipen-bilerak izan al dira kasua etxeko langileen eta babes teknikarien artean baloratzeko?
1.BAI ❑ 2.EZ ❑ 3.99.Daturik ez ❑ *Bilerak, guztira*............................ 99. Daturik ez ❑

## H) OSASUNA

**H.1.** *Osasun-txartela*
1- Eskatu al da? 1.BAI ❑ 2.EZ ❑ 3.99. Daturik ez ❑ Data (uu/hh/ee):__/__/__
2- Eman al zaio? 1.BAI ❑ 2.EZ ❑ 3.99.Daturik ez ❑ Data (uu/hh/ee):__/__/__

**H.2.** Azterketa medikoa egin al zaio justu sarreraren aurretik edo ondoren?
1. BAI ❑ 2. EZ ❑ 3. 99. Daturik ez ❑ Data (uu/hh/ee):__/__/__

**H.3.** Zein diagnostiko edo gomendio egin ziren? ................................................ 99. Daturik ez ❑

## I) TUTORETZARI UZTEA

I.1. Babes sistematik irtetea?
1. BAI ❑ 2. EZ ❑ 3. 99. Daturik ez ❑ Data (uu/hh/ee):__/__/__

I.2. Zioak? ................................................ 99. Daturik ez ❑

I.3. Emantzipazio edo bideratze plana? 1. SÍ ❑ 2. NO ❑ 3. 99. Daturik ez ❑

I.4. Zein diagnostiko edo gomendio egin ziren? ................................................ 99. Daturik ez ❑

I.5. Zein lan edo bizitzeko baliabiderekin? ................................................ 99. Daturik ez ❑

OHARRAK